



Parke Naturala Aralarren

- ARALAR, PARKE NATURALA IZANGO LITZATEKE LAISTER. GOIMEN: KONPROMEZU GARBIA BASERRITARRAREKIN. PELAEZ IDIAZABALDARRA, MITINLARI SUTSUENAREN “REVIVAL”A. GOIERRI-KANCHUNGSE ESPEDIZIONARIEKIN. BEIZAMAKO KRIMENAK BAZTERROK AZTORATU ZITUEN BEHINOLA. N-1 ETA ETXEGARATEREN BIKOIZKETA POLITIKOEN IKUSPEGITIK, INKESTAN. JOSEBA REZOLA GUDARI IBILTARIARI OMENALDIA. TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX PAILAZOEKIN. EGUBERRITAN, ZER JOSTAILU EROSI?
- ZAHARRAK BERRI, OHIZKO ATALAK ETA BESTE. GOIERRITARRA-REN ALDI BERRIAREN ZAI, GABON ONAK PASAK ETA URTEBERRIAK ARTE!

HIGIEN SEC Gurutze Ruiz de Azua

LEHORREKO ETA BUSTIKO
GARBIKETA BAKTERIOLOGIKOA

Urdaneta, 52 - Tel. 16 14 48 • 20240 ORDIZIA

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokpiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA

Unanue

— GOZOGINTZA —

- Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
- Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
- J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
- Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 8812 65

ORDIZIA

MARRAK

IDOIA - KARMELE
ESTILISTAK

Ileapaindegia

Foru, 1 - Tfnoa: 88 89 34

20200 BEASAIN



Irakur


EUSKALDUNON Egunkaria

ARRIKUTZ TAILERRAK, C.B.

Autoen konponketa Orokorrak

PROBA-MAHAIA:

- Proba-Mahaiko Zerbitzu guztiak
- Frenoak
- Suspentsioa
- Norabide Zuzenketa
- PRE-ITV errebisioa



Nafarroa Etorbidea, 53
Tfnoa: 88 52 00 • BEASAIN

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

29. zenbakia. 92.eko abendua. Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale. 2.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkartea". Dorre- etxea, 1. pisua (Correos-gainean). Tfna: 889612. 124 posta kutxa Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du.

Erredakzioa: Jon Mikel Arano, Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastorza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Rosa Amundarain eta Jesus M. Munduate.

Azaleko argazkia: Gema M. Arrugaeta.

Ale honetako kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Mikel Aramendi, Xabier Gartzia, "Maizpi", Joseina Etxeberria, Koldo Zubeldia, Bixente Barandiaran, Jone Arin, Josune Arruabarrena, Andoni Eskisabel, Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia, Rufino Iraola, Antonio Irastorza.

Gure eskerronak: Gure "sponsorrei": publizitatea ematen diguten guztiei. Ampo, Eroski eta Orkli kooperatibei, Goierriko Udal Ordezkariei, "Antza"ri eta "Egunkaria"ri. Era batera edo bes-



tera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzuenoi.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzunkizunik.

Zein da aldizkari irakurriena Goierri? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa
Dei 889612 telefonora.

Ideia jatorrenek ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote
GOIERRITARRAri



Abixua:
GOIERRITARRAren egoitza lekuz aldatu da, Postaetxearen azpitik gainera.
Hobera edo.

GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

1992ko publizitate-prezioak:

Behin:

Modulo bat.....4.000 pzta.
Bi modulo8.000 pzta.
Orrialde erdia.....20.000 pzta.
Orrialde osoa.....40.000 pzta

ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbakitan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....3.500 pzta.
Bi modulo7.000 pzta.
Orrialde erdia.....17.500 pzta.
Orrialde osoa.....35.000 pzta.

Prezio hauek zenbaki baterako balioko dute. Urtean 10 zenbaki argita-



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria.....Tlf.....

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER




ALTZAGARATE JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaia, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora.

ALTZAGA.



IRYROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA



NAGUSIA,7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

ATERPE TABERNA

kultur erakusketak
egiten dira

Tfnoa: 88 46 66

BEASAIN



Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



Gudarien Etorbidea - Tel. 883960
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

Lana

- Linterneritza-lan mota guztiak egiten dira. Aurrekontuak gustora egingo ditugu, konpromezurik gabe. 888880, Lazkao.
- Neska erresponsible batek goiz eta arratsaldean lan egingo luke. 886867, Sonia.

Salerosketak

- Zakurkume ederrak salgai: cocker, collie eta artzai-zakur arrazetakoak. Telefonoa: 888069. Beasain.
- "Argia" astekariaren (89. eta 90. etako) 1269.a, 1279.a, 1284.a falta zaizkigu. Eta "Zeruko Argia"ren (80.eko) 868.etik 878.a arte, 881.a, 895.a, 896.a, 897.a. (79.eko) 838.a, 846.a. (78.eko) 802.a, 806.a, 810.a. (77.eko) 742.a. Eta (76.eko) 714.a. Zure laguntzarekin, bilduma berandu baino lehen lortuko dugulakoan gaude. Eskisabel Sukia Sendia. Urdaneta K., 19. Ordizia.

Etxebizitzak

- Etxebizitza salgai Ordiziako Urdaneta kalean: 97 m². Bi bainugela, gela guztiak egutera aldera, ia guztiz jantzia, ganbara du. Garajea aukeran. 889612, 792236, Ramon.
- Castillo de Jaca (Candanchutik 20 km. tara) bi etxebizitza alokatzen dira, abendutik maiatzea bitartean. Sei eta zortzi ohe dituzte. Interesdunek dei iluntzeko 8etatik aurrera, 974. 360377ra.

Agurak

*Edurra mara mara ari da,
Zuritu du mendia
Arditxoak sartu dira
Hotz hotzez
Txabol, txabol zaharreen.*

*Nik badaukat bildots txiki bat
Hemen seaskatxoan
Baina hau jango dun otsorik
ez da sortu munduan.*

Ordizia-Beasaingo Goardiako Farmaziak
Abenduak 15: Urbizu; 16: Atorrasagasti;
17: Azpilikueta; 18: Jauregi; 19-20: Arriola;
21: Launaga; 22: Cuesta; 23: Arriola;
24: Urbizu; 25: Atorrasagasti; 26-27:
Cuesta; 28: Azpilikueta; 29: Jauregi; 30:
Launaga; 31: Cuesta.

Ekitaldiak Legorretan

- Abesbatza Sorta (Urtea amaitzen, amaiera alaitzen): Abenduak 12: Gaueko 8etan, Salvador Deunaren Parrokian, Azkoitiko Iraurgi Abesbatza; Abenduak 28: Gaueko 8etan, Parrokia berean, Donostiako Aita Donostia Abesbatza.
- Euskal Dantza Ikastaroa (Arin-arin eta fandangoa) ihardunean larunbatero abenduaren 5ean hasita, goizeko 10etatik 1etara. 30 ordutako iraupena izango du.
- Abenduko filmeak: 8/9: "Una pandilla alucinante"; 13/14: "La pequeña picara"; 20/21: "Batman vuelve"; 27/28: "La mano que mece la cuna".

"Ordiziako Mendizaleak" en egutegia: Abenduak 13: Esparru- Hirumugata.

Telefono interesgarriak

Udaletxea	88 64 08
Ertzaintza	88 73 50
Anbulategia	88 87 55 / 88 26 32
Gurutze Gorria	27 22 22
D.Y.A.	46 46 22
Larrialdiak	88 09 67
Suhiltzaileak	88 13 62
Maizpide Euskaltegia	88 92 31
A.E.K. Euskaltegia	88 93 40
S. Prudentzio Ikastetxea	88 26 30
S. Benito Ikastola	88 08 00
Parrokia	88 02 29
Sarasola Autobusak	88 02 59
RENFE	88 08 53
Polikiroldegia	16 09 34

 LAZKAOKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA


Telefono interesgarriak

Gurutze Gorria	27 22 22
D.Y.A.	46 46 22
Anbulategia (Ordizia)	88 11 65
Anbulategia (Beasain)	88 07 59
Eskualdeko Ospitalea	72 38 13
Udaletxea (Ertzaintza)	88 73 50
Udaltzaingoa	88 40 05
Suhiltzaileak	88 13 62
Bulego Nagusiak	88 58 50
Ongizate Saila	88 82 50
Obralan Bulegoa	88 24 65
Kontuhartzailetza	88 76 00
Kultur Etxea	88 12 80
Herri Antzokia	88 07 44
Majori Kiroldetgia	88 93 33
RENFE	28 30 39
Oiangu Baserria	88 91 06

 ORDIZIAKO UDALA. EUSKARA ZERBITZUA

Udaletxea	88 59 00
Gizarte-Laguntza	88 59 04
Udaleko Euskara Zerbitzua	88 75 12
Bulego Teknikoa	88 38 60
Udaltzaintza / Suhiltzaileak	88 13 55
Ertzaintza	88 73 50 / 88 09 61
Osasun Etxea (Anbulatorioa)	88 07 59 / 88 86 50
Osasun Etxea (Larrialdiak)	88 09 67
Gurutze Gorria	88 28 35 / 88 79 99
Adimen-Osasun Zentrua	88 67 62 / 88 67 66
Arangoiti Agureen Egoitza	88 01 56
Erretiratuak Etxea	88 48 04
Antzizar Polikiroldegia	88 79 00
Udal-Biblioteka	88 90 93
Udal-Euskaltegia	88 90 94
B.O.K. Musika-Kontserbatorioa	88 90 95
Taxiak	88 03 67
RENFEko geltokia	88 08 53
Bake-Epaitegia	88 16 81
Alkartasuna Lizetza	88 26 84
La Salle Ikastetxea	88 01 39
Loinazpe Ikastetxea	88 26 44
Murumendi Ikastetxea	88 00 25
San Jose Ikastetxea	88 20 95
Txindoki Ikastetxea	88 07 53
Goierriko Lanbide-Eskola	88 00 62
Oiarbide Ehorztetxea	88 26 21

 BEASAINGO UDALA. EUSKARA BATZORDEA



ITSASONDOKO UDALA

Ongizate	88 13 55
Farmazia	88 75 89
Udaletxea	88 11 70
Eskola	88 77 04
Atzeragako erloj. publikoa	88 07 40
Udaleko laborategia	88 00 45
Erretiratuak	88 11 61
Ertzaintza (Beasaingo lekuak)	88 73 50
Suhiltzaileak (Ordizia portetik)	88 13 62
Udal-zerbitzua	72 16 14
Donostiako Erretiratuak	45 38 00
Gurutze Gorria	27 22 22
D.Y.A.	46 46 22
Herri	88 13 62
Goierriko Euskal Eskola	88 00 62
Saguna lekuak	80 11 41

Balaka...klin,* euskaraz ba al dakin?

Egun hauetan Ordiziako motiko bati gertaturikoa entzun dut, istorio tristea benetan baina isilik utzi ezinezkoa. Motiko hau, bere lagunak sartu direla eta gutxiago ez izatearren Balaka...klinen sartu da. Bertatik pasatu diren batzu sekta deitzen dioten aisialdiko taldean hain zuzen. Beno!

Aurkezpen eguna iritsi da eta monitoreetako baten lehenengo hitza: "Ya que habra gente no sabe euskera hablare en castellano, Cuantos no sabeis euskera?", eta inortxok ere eskurik altxatu ez. Hala ere gure monitore prestuak, kolore izpirik aldatu gabe, barra-barra erderaz jarraitu du, haur guztiak euskaldunak izan arren, beste hiru monitore erdaldunak bait dira. Bapo!

Ondoren, apaiz jaunaren txanda iritsi omen da eta honek diskursotxo edo sermoitxo euskara garbian irakurtzen du, baina hara non, denek ulertu dutena erderaz errepikatzen duen. Bejondeiola!

Gure motiko gizarajoak lotsa-lotsa eginda jasan du hau dena. Euskaldunok horrelakoak gara, zapaltzen gaituzte eta gainera geu lotsatzen gara (ez duenak duenari ematen dion gauza bakarra). Gure laguntxo euskalduna denez, horrelaxe erreakzionatu du, umill-umill. Ez al zuen hobe izango, gaur egungo telebistako izarra den Bart Simpson-en antzera erdi rapeatuz direnak eta ez direnak, lotsa gabe, horiei aurpegira esatea? Baina ez, gure garaiko telebistako Kalimerok bezalaxe erreakzionatu zuen, burua makurtu eta hau injustizia bat dela esanez. Horrelakoak gara!

Manu Osinalde (Ordizia)

** "Balaka...klin" diot, bere izen zehatza ez bait dakit, ikasteko inongo asmorik ez dudana bezalaxe.*

Intoleranteak, lerdoak, light, bere buruaz beste, akabu!

"Euskaldunari geratzen zaiona mundu honetan da bere buruari begiratzea eta bere buruarekin pozten jakitea, bai eta bere miseriekin ere. Gutxi gara eta txikiak

gara, beno ba poztu gaitezen gure txikitasunean. Bere burua eginez parte hartzea munduaren ederrerrako, ez handitasunerako. Herriak pertsonak bezalaxe, beren buruaren onarpenaz erretratitzen dira, bestela eskizofreniko bihurtzeko arriskua dago. Besteak adina izan nahi eta besteak bezain inbezilak gara. Hori da gure tragedia" (Joxe Azurmendi).

Gizakiak duena bere burua begiratzea da eta begiratzen horretan ikustea-ikustea, eta datorrena datorrela! Gutxi, txiki, onartu, ulertu horretatik, aske, ederra, zoriona, bidaia, abentura, bakea, maitea, egia: barne-iraulketa, benetako iraultza bakarra. Ez dago besterik, norbera eta ez nor bera; inperialismoa, konkista, dugu-na, neurosia. Konparaketa hutsalak. Beste guztiak, saldukeriak, modak, behar-txoak, kulturaxoak, negarrak! Horregatik, ihesbideak, urrenerako bidaia, kultura-kontrasteak, Ni. Hutsune latz hori menderatu nahia. Bakardadea uxatzeko usteak. Gizarajo-gajoak, dena barruan izan!

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)

GOIERRITARREN Aldi Berria

Urte haseran biltzen hasi ginen Goierriko Udal-ordezkariak eta "Goierritarra" aldizkariaren arduradunok. Udalek txosten bat eginarazi zioten "Arrasate-press" aldizkariako zuzendari ohi den Joxe Aranzabali. Kanpotik zetorrenez, txosten eztabaidagarri bat egin zuen hark eta gero Udaletako batzorde bat eratu zen. Hauek Oinarritzko Irizpide batzu erredaktatu zituzten eta Proiektu bat eskatu ziguten "Goierritarrak Kultur Elkarte"ko.

Bada, Oinarritzko Irizpide horiek onartu eta "Goierritarren Aldi Berria" izeneko Proiektua idatzi dugu. "Goierritarra" Goitik behera berritzea da asmoa. Hasteko, 24-28 orrialdeko eskualde hamabostekaria ikusten dugu praktikoan; informazioa (geroz eta gehiago) eta kultura ardatz izango dituen aldizkaria, orekari eutsiko diona, 3.000 aletik gorako tirada izango duena, gehigarriak izango dituena.

Pertsonalaren kapituluak, lau langileko plantila sumatzen da ezinbesteko; hauetatik bik, orainarte lanean ari direnak beharko dute izan. Lehendik "Goierritarra"ko taldean aritu izana meritutzat joko da eta euskara menperatzea ezinbestekoa da kasu guztietarako. Zuzendari berriaren postua betetzeko dago, eta lehenagoko zuzendaria kazetari-lanetan gel-

dituko da. Maketatzailaren eta publizista-administrariaren lan eta izaeraren bertsatildadea kontutan hartu beharko da. Argazkigile, kolaboratzaile, talde eragile eta erredakzio kontseiluari dagozkion kapituluak ere badira.

Autoedizioa behar-beharrezkotzat jotzen zuen Aranzabalek eta bai eta ere "Goierritarra"ko. Horregatik sartu gara "Page- T" edizio-aplikazio profesional baten "zuloan". Udalen akordioa iristen denerako prest izango gara. Horregatik eskatzen diegu Udalei 92.era onartuta dituzten dirulaguntza osoak (30 pta. biztanleko) efektibo egin diezazkigutela. Gastuen murrizketa galanta dakar autoedizio- sistema hori erabiltzeak eta lehen urteko inbertsioa izango da bakarrik: milioi t'erdia. Lehen urteko gastuak ezer gutxi gehiago igoko dira. Aldizkariaren aurrekontua, berriz, honakoa izango da: pertsonala, hamar milioi; inprimategia, hiru milioi t'erdia; banaketa, zazpirehun mila, e.a. Hamabost milioi t'erdia denetara.

Pertsonalaren ebaluaketa eta kontratazioa GKE eta Udalen artean egin beharreko gauza da, adostasunez. Aldizkariak bere gestio osoa berak eramango luke, pribatua denez, nahiz laguntza publikoak izan. Kultur Elkartekook,

irteerak eta sarrerak parekatzeko Udaletxeen edota Udaletxeen bidezko diru laguntza eskatzen dugu lehen urterako, 93.era: bost milioi t'erdia; Jaurilaritzaren eta Diputazioarengandik hiru milioi itxaroten ditugu, publizitatetik zazpi milioi. Sei orritako Proiektuaz gain, "Goierritarra" hilabetekariaren 92.eko kontu-ematea zuzendu diegu Goierriko Udalei eta gero ere kontuak emateko konprometua hartu dugu. Goierritarren bailadaren onerako den momentu historiko baten aurrean gaudela zioen Aranzabalek. Gehiago esango genuke guk: "Goierritarra" berriak espektatiba berriak sortuko ditu, Goierritarren zerbitzeko bokazioarekin jaiotako gara eta Udalen eta GKEaren arteko bat etortzearekin aberastasun bat sortuko dugu.

Hiru urte soluzio-zai, eta baldintza eskas-tan ibili arren, euskarazko prentsa lokalari lekua egin diegu. Diru-problema egon dira tartean eta gehiago dagoenean hobe egingo da. Izugarri estimatuko genuke Goierriko Udalek ontzat emango balute Proiektu berri hau eta "Goierritarra"ren Aldi Berria 30. zenbakirako gauzatu eta estrinatuko bagenu.

"Goierritarrak" Kultur Elkartea

Besteek esana

Errepide diskriminatzaileak

Aberats eta pobreentzat proiektatzen dira errepideak. Pobreei dagokiena N-1a da, Irun-Madril komertzionala Etxegarateko mendatetik zehar, non 14 gerratean hainbat europar hil diren. Ahaldunen "Via Domicia", derrigorrezko peajeko Maltzaga-Urbina izango da, izugarrizko peajeko Bilbo- Behobiarekin lotuko dena. Horrela erabaki dute gure herri zatikatuko politiko eta agintariak. Amen. Eztabaida sutuen ondoren, Europatik Afrikara bideko ardatz nagusia Maltzaga- Urbinatik desbideratuko da, N-1aren kalterako. Ardatz oker bat! Sakanako naparrak eta Goierriko nire herrikideak euskal mapan N-1a 11 km. bikoiztu gabe geldituko dela eta sutan daude, obra hau eskualde hauen garapenerako ezinbestekoa bait da. Europar ikuspegitik begira, Parise-Algeciras errepideko 2.000 km.etan botila-mutur bakarra izango dugu. Ez da faltako "Euskadiko tapoitzarra" deituko dion adarjolerik. Eukiko al du NBE esperantzagarriak kasu hauetarako eskabadora urdinik?

Iñaki Linazasoro,
"Gipuzkoako plaza", "D.V."

Zaborrak birziklatu

Zaborrentzako irtenbideak aurkitu beharrean dabil gure gizartea, bertan itoko ez bada. Irtenbideetako bat, ez bakarria, inolaz ere, birziklatzea dugu.

Goierri ez da iada tontor berde eta zelai bustiz osatutako paraje ametsekoa. Gurean ere, zaborrek, kutsadurak egunero adierazten digute gure errealtate kontsumozalearen nondik norakoa.(...)

Hainbesteko zabor kiratsak okitu eta nazkatuko zintuen dagoeneko, baina dena ez dago besteen esku. Guk geuk izugarrizko eginkizuna dugu. Izan ere, zaborrok guztiok, guk geuk, geure etxetan aurrez birziklako bagenitu eta gero udaletxeek benetako azpiegitura

antolatuko balute egundoko berreskuraketa eta birziklaketa burutuko genuke. %80koa, inork txantxa baderitzo!

Horretarako Goierriko Talde ekologistak eskatu dio Beasaingo udaletxeari herria eduki ezberdinentzako zaborrontziz hornitzea. Batetik, kristalenezko bidoi gehiago jartzea, izan ere, kontsumitzen dugunaren %10 ere lehengo kristalarekin egitea lortuko bait litzateke, honek izugarrizko energia aurrerapena dakarrelarik. Behar- beharrezko beste zaborrontzi mota bat paper eta kartoia botatzekoa dugu. Horrekin erabiltzen dugun papera egiteko beharrezko diren lehengaien %30a aurretuko genuke. Hirugarren zaborrontzi mota plastikoarentzako litzateke... Jakina denez, petroleo izugarri behar da plastikoa egiteko eta plastikoa erretzean berriro petroleoa eskuratzea lortuko genuke, %8a aurreratuz.

Hauek dira oraingoan eskatuta daukagunak, baina behin jendea ohitzen hasi ezkerro, gerora beharrezkoak izango lirateke metalezko zakarrentzako zaborrontziak, eta materia orgnikoentzakoak, esate batera.

Goierriko Talde Ekologista,
"Zutik" 2. zenbakia.

Apala eta Artapalo

Sinestarazi ziguten Pakito neurotikoa bat zela, segurtasunarekin zeukan obesioak paranoikoa bihurtu zuela urrikalgarria. Denborak ematen duen jakinduria errazaz baliaturik, erretratu robotak huts egin zuela esan daiteke. Froga argiena aurtengoa dugu: atxilotu zuten arte, ez ziren Artapalo izen kolektiboaren lazuz konturatu. Organigrama zaharkituen arazoa ere hor dago, gutunen faksimiliak ezin argitaratzearena... armen jatorriaz ere ez digute berririk ematen. Egiatzki triste gaude prentsajale amorratuok.

Baina orain Apalaren txanda iritsi da. Kazetaritza anti- terroristaren krisi latzari bidea eman diezaiokeen komodia izan liteke. Gai faltaren kontrako txer-

toa. Duela hamabost bat urte, zenbaitek heroi izendatu nahi izan zuten, traidoretzat jo eta gero. Orain, kontrakoa egin nahi bide da. Izan ere, ataundarrari buruz mitologia oparoa dago (mitoak ez dira beti gezurra, badakit): CAF, Berazadi-Ibarra, 77ko gose greba, Pertur... eta horrez gain Kanadan aizkolari, Venezuelen taxista, eta Kuban turista. "Apalamaniak" kazetari batzuen nekrofilia ere deskubritu zuen, hil egin zela esan zuten eta. Berpiztu egin dute osteria, eta orain Lapurdiko kostaldeko kaleetan omen dabil batekin eta besteekin zitak egiten. (...)Apalaren kasuan etor daitekeena benetan dibertigarria izan daiteke. Animo, kazetariok!, bulegoko hitz aspertuak zuek gabe hankamotz egin bait zaizkigu azken hilabeteotan.

Josu Landa, "Argia", 1.404 zka.

Argiñano, gailurretik atzera begira

Txapista nintzen CAFen eta sukaldaritza asko gustatzen zitzaidan txikitatik. 8-10 urterekin sukaldean aritzen nintzen gauzak prestatzen. Zarautzen ostalaritza eskola zabaldu zutela irakurri nuenean, izena eman nuen. Oso une ona izan zen, Beasainen ikasteko balio ez zuten 17 urteko mutilak lanera abiatzen ziren, baina pertsona bakoitzari dago-kion lana, gustoko duena zein den pentsatu gabe. (...) Emakume ileapaintzalea izatea ere gustoko izango nuke. Sekula ez dut horrelako lotsarik izan. Oso gogorra iruditzen zait egunero lan egiteko korrika ibiltzea, gosalduta eta lanera, bazkaldu eta lanera... Beasainen, inguruan oso jende jatorria nuen baina 3.000 geunden lantegian eta ni hutsaren hurrengoa nintzen eta hori gauza gogorra da. Ostalaritza eskolan sartu baino lehen ibili nintzen Jose Castilloren Emakume Ezkongaien ikastaroetan, Accion Catolicak antolatzen zituenetan. Han ere, 60 emakumeen artean mutil bakarria nintzen.

Karlos Argiñano, "Argia", 82-XI-1.

Ba al dakizu...?

✱ GIZARTEA

✱ N-1 errepidea zabaltzeko lanak 99.an bukatzea aurreikusi du EAEko Errepide planak. Etxegaraterainokoa zabaltzeko prozesua datorren urtean hasiko da. Lehen egindako planaren aurrerapean lan horiek 98an hastea zeukan aurrikusia. Aldi berean egingo dira, baina Urbina-Maltzaga autopistak izango du hala ere lehentasuna, 98an bukatuko dutela hura. Hobe hartu da erabaki hau inguru guztietan.

✱ Diputazioak ia 50 milioitako dirukopuru bat onartu du Beasain eta Itxaso bitartean lau karriletako zatia egiteko proiektua erredaktatu dadin. Beasain-Durangoko autobiareneko tramua bat gehiago da honakoa. Horrez gain, Amundarain ibaian presa bat egiteko asmoa du Foru Diputazioak.

✱ Ia eguneroko gaia da CAF paperetan. Mexikoko metroko arduradunak izan berriak dira hemen. CAFek urte erdi barru bidaliko ditu trenak hara. Orain berriz, 96 kotxe egingo ditu Bilboko metrorako. Beste 82.000 milioitara hazten da bere eskari kartera. Horrez gain, multinazionalekin dituen hartuemanak ere palestrara ateratzen dira: kanpoaldean merkatuak irekiko dizkion atzerriko sozio-teknologikoaren bila dabil Fabrika Handia.

✱ Zerainen, XIX mendeko zerrategia berriro ere martxan. Gipuzkoan irauten duen bakarra da eta eta bere berezitasuna, berriz, erreka urek mugiarazten duen turbina batek sortzen duen argi-indarrez funtzionatzen duela. Duela 60 urte berritu zen zerrategi hau, azken 30 urte hauetan geldirik egon da eta orain, berriro martxan da.

batzuk egin eta gero, lanerako erabiliko ez bada ere, erakusketa bezala egongo da zabalik.



✱ Mari Karmen Garmendia ormaiztegiarrak (Euskal Autonomi Elkarte Hitzarteko Politikarako idazkari nagusiak), gaur egun indarrean dagoen euskaren normalkuntzarako politika egokiena dela uste du. Mari Karmenen esanetan, azken hamar urteotan euskaldunen kopurua %24 hazi da eta 100.000 euskaldun berri lortu dira. 1981. urtean 448.000 euskaldun izatetik, 1991.ean 548.000 izatera pasa gara.

✱ Telefono-kabina baten beharra aipatzen da Seguran, ezarritako bietatik bat geratzen baita bakarrik.

✱ "Euskal Herrian Euskaraz" erakundeak tabernariengana zuzendu da, eta ez da lehenengo aldia, euskal musika jar dezatela eskatuz, talde honen ustetan oso gutxi entzuten baita gure herriko musika Beasaingo tabernetan. Euskal musika bultzatzea bezeroen esku ere badagoela diote

beren deialdian.

✱ "Gurutze Gorria"ren ikastaroak hartu nahi dituenak 882881 telefonora dei

dezake edota Beasaingo Nafarroa Etorbi-dearen 2ra zuzendu. Jose Jaber Gomez, Mikel Torres eta Iñaki Albiak atxikituko zaitue astelehene ostiralera eta 20tik 21,30 ordu bitartean.

✱ Ordiziako Gizarte Ongizateko animazio zerbitzua emakumeen elkarte bat sortzekotan dabil. Lehen bilerak hasiak dituzte.

✱ "Goikerri" zerbitzuak bailadako enpresa garrantzitsuenen artean izandako harrera oso ontzat jo du "D.V."k. Urte bete du eta bere helburuen artean Goierri Lanbide Eskolarekin harreman estuak edukitzea ere badago.

✱ Etxebizitzak egitekoak dira Ataungo futbol zelaian. Bestalde, aiatarren eskakizunak Udal batzordeetan eztabaidatuko dira hemendik aurrera.

✱ Mutiloan, zaharren txoko bat premiazkotzat jotzen da.

✱ Lazkaoko Udalbatzak "zepo" bat erosi du: autoa behar bezala aparkatzeko ohitura indartu nahi da. Herri bereko San Migel Goiaingeruaren Eliz-parrokia berriro da guztiz. Gogoratu sute batek kalte handiak eragin zituela bertan orain 3 urte.

ZUMAKETA, S.A.

Laister etxebizitza, behe eta garajeak salgai
Lazkaoko Elozegi kalean

Koldo Eleizalde, 1 behea — Telefonoak: 76 33 42/43 — Faxes: 76 11 07 — BERGARA

* KULTURA

* Foru Aldundiak Lazkaoko Beneditarren liburutegia 10 milioiz subentzionatzea erabaki du. Katalogaziora bideratzen da dirulaguntza hau. Zorionak Juan Joxe!

* Dulce Maria Loynaz beasaindar jatorriko poeta kubatarra izendatu dute Cervantes Saridun 92.era. Atzo goizean ezezaguna genuen idazle hau. Beasainen, ordea, bere memoria beroa gordetzen duen jenderik bada, bertako Fesetako Urtekarian kolaboratu ohi bait du eta herria bisitatu ere bai 50 eta 60 hamarkadan. Loinazko San Martinen ondorenetakoa dugu Dulce Maria eta bere bizitzaren ezagule handia. Zenbait idazle espainiar eta hegoamerikarrek kritikatu egin dute sari hori eman izana, baina Gipuzkoan ez da gaizki hartu, nahiz bere liburuak aurkitzea arras nekeza suertatu den.

* Herri berean, Usurbe zinemaren proiektua berraldatzea erabaki da, nonbait, bizilagunen protestak izan bait dira. Hemendik 15 hilabeteetara berreraikia izango da zinema. 160 milioiko aurrekontua du.

* Idiazabalgo leku-izenak aztertu ikastaldia ematen ari da bertako Antonio

Berasategi. Beren helburua, idiazabaldarrek duten altxorra gorde eta indartzea da. Non daude Ugarkazabaleta, Saskain edo Marzekotegi? Nola esaten da: Izaal, Etsegarate, Olaberriita ala Idiazabal, Etxegarate, Olaberrieta? Honelakoak lantzen dira ikastaldian. Euskaraz dakien edozeinentzako modukoa, koaderno eta boligrafoa dira eraman beharreko gauza bakarrak.

* Egun berean, urriak 30ean bi liburu aurkeztu ziren: "Hizkuntz Ordezkapenaren nondik norakoak Goierri: Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Idiazabal, Itsasondo, Ormaiztegi, Zaldibia eta Zegama" eta "Joseba Rezola. Gudari de Gudaris. Historia de la resistencia". Izenburu luzeekiko liburuak. Lehena "Goiherriko Euskal Eskola"k eta Gerrikok argitaratu dute; bigarrena, Sabino Arana Fundazioak.

* Fernando Chueca Goitia arkitektuak bukatu berri du Madrileko Al mudena Katedralaren eraikuntza. Bere amaren aldetiko ordiziar jatorria aitortu du.

* "Eltzegor" taldea bere 3. diska grabatzen ari da Donostiako IZ estudioetan. "Herrialde Berdea" izenburua eramango du. Hego eta Iparraldeko jendez osaturik dago talde hau; bere kideen artean Fernando Unsain kantari lazkaotarra, IZ-ko nagusia, Goierri aski ezaguna aurki daiteke. Kanten hitz guztiak Xalbardine-



Fernando Unsain

nak dira, Agiñak egin dituenak salbu (Antton Iburguren omenez kanta bat ere bai) eta doinuak Unsainenak.

* Mikel Urretabizkaia ordiziarra Ameriketara dabil telebista-sail bat errodatzen. Zazpi erlijio-gizonen lanak biltzen ari da. Tartean Callaon dagoen Migel Irizar ormaiztegiarrarenak.

* "Beasaingo Paperak" aldizkariaren I. zenb. kalean: herri-elkarteei eskeinitzeko dator eta Jesus Larrañaga "Goierri"ren berri ere badakar. Bestalde, "Beasain" II Idazlan Lehiaketan sarituen liburua ere argitaratu berri da.

RAIMON MUSIKALA


SANYO BANATZAILE OFIZIALA

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRETA, Z/G.

Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN



JATETXEA

885255

DONOSTIA

ALTZAGA

Itsasondo Ordizia

GAITE



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

• LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
• ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.

Tel. 88 71 26

Faxa: 16 10 77

ITSASONDO

(Gipuzkoa)

Zer iritzi duzu N-1aren



JOSE LUIS
ZALDUA,
44 urte,
beasaindarra,
banka-
enplegatua.

Bikoizketa horren alde nago, baina Beasain-Durangoko sahiesbideak garrantzi haundiagoa izan dezakeelakoan gaude. Lehenetasun gehiago dauka honek Etxegaratukoak baino.

Beasain eta behe-Goierrri ingurune honetarako inportanteagoa ikusten dut Zumarragako korridore hori eraikitzea. Dudik gabe, N-1a aurrera eramatea ere inportantea deritzot. Baina lehenetasunetan, errekurtsoen arabera, aurreagotik Beasain-Zumarragarako bidea. Bilbora inguratzea ona da; Donostiarako bidea badugu, tunela zulaturik bait dago. Ona litzateke Bergara, Arrasate eta Eibar aldera bideratzea. Ia bi urtetan Arrasatera eta urtebete Eibar-bidean ibili naiz eta kaminoa paragarritzkoa da.

Gure argudioa da, dena errekurtsu ekonomikoen arabera dagoela. Donostiarako 4 karril badaude, Altsasrainoko bidea geldituko litzateke 4 karrilik gabe. Baina ia subastara emanda dago "Sobrino" etxeari 3. karrila egiteko lana. Horrek dakar momentu honetan ia Etxegaratuko ibilbidean bide erdian baino gehiagoan 2 karril daudela goraka. Bikoizketa egin behar dela pentsatzen dut, baina nire iritziz lehentasuna dauka Zumarraga bidekoak. 84-85.era 4 karril izango dira hor. (Jose Luis Zaldúa)



MIGEL MARI
ARAKAMA,
48 urte,
laskaotarra,
harakina.

Nere iritzia da interes politiko eta ekonomikoak daudela tartean eta lotuta, beti dauden bezala. Ez dakit zergatik primatzen duten Maltzaga-Urbinakoa, goierritarrontzat kalte latza izango da aurretik bestea egin edo gure egiten ez badute. Lehenetasunik behar genu-

keenik ez dakit, baina ez utzikierarik behinepein. Biak batera egin beharko lirateke, ez daukat ezer bestearen aurka, diodana goierritar bezala diot. Errepide jenerala beti ezagutu izan dugu eta zer dela eta kendu inportantzia horri? Zumarraga-Durangoko saihesbidea ona izango da Beasain eta ingurukoentzat, Bilbora gerturatzea ona da, baina Iruñera gerturatzea ere ona litzateke, batipat Iruñea-Gasteizko sarea bukatzeaz dagoela. Nik inori ez diot ezer kentzen, baina lehenagokoari eustea ere ederra izango da, hori uste dut funtsean. Aurrerakuntza guztiak dira hoberako. (Migel Mari Arakama)



JOSI
ARRUABARRENA,
Ordiziarra,
30 urte,
Diputazioko
langilea.

Udalean bi aldiz hitz egin da plenoan gai honetaz eta denok ados gaude, alkatetik hasi eta azken zinegotziraino. N-1aren desdoblazteak ez du esan nahi besteak egin ezin direnik.



Giro on eta jatorra

Tif.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

Bodegon

GOIERRI

JATETXEA

Kale Nagusia, 20 Tel. 88 00 00 BEASAIN



ANZIZAR, S. A.

Beasain-Zumarraga 46 Km.
Telefonoak (943) 88 17 00 - 88 17 00
FAX. (943) 88 48 11

111 p.k.
20200 BEASAIN

**Automobil mekanika eta elektrizitatea
Bosch-Jetronic Diesel eta Gasolina injekzioa**

- Volvo-Alfa Romeo-Toyota autoen salmenta agentzia
- Kienzle takografoen salmenta eta konponketa
- Blaupunkt auto-irradiak
- Denetik automobil-kontuetan

Etxegarateko bikoizketaz?

(Inkesta 92-XI-14ko datan burutu zen)

Urbina-Maltzagaren alde daudenek esaten dute gaizki dagola gu beraien aurka egotea, baina gu ez gaude inoren aurka.

N-1ean gastatu beharrekoen miloi gehienak gastatu dira, %85a eginda dago, 11 km. bakarrik geratzen dira. Ezin dira bi obrak konparatu. Hemengo etxe berri bati teitatu egitea bezala da, egin gabe uzteak ez du zentzurik. Urbina-Maltzaga bakarrik egin ezkerro, izena aldatu eta N-1a jarriko diote. Orduan nazioarteko trafikoa handik joango da eta hurrengo hamarkadan, Etxegaratek izena galdu-ta izango duenez, ez du zentzurik izango. Goierri beti egon da Parise-Madril ardatzean eta kokapen hori galduko luke.

Azpimarratu ez gaudela Urbina...-ren aurka. Plan hau aztertzean goierritarroei ez zaigu ezer galdetu, dena Gasteiztik kanpoko enpresa baten bidez egin da. Ez dute kontutan hartu goierritarrei zer suposatzen dien kokapen historiko hau galtzeak. (Josi Arruabarrena)

Etxegarateren desdoblamentuaren aldekoa naiz. Egin dezatela ja!, Maltzaga-Urbina-koaren aurretik, zeren eta autopistetakoeekin dituzten akordioak (peajearen beherapenak, e.a.) ez dute gurekin zer ikusirik (auzi horretan peajearen liberalizaziora jo behar dute, ze Bilborako autopistaren hogeitapiku urtetarako kontzesioa-edo bukatu egiten bait zaie; hor



JERONIMO
GALLINA,
39 urte,
Lazkaokoa,
enkofratzailea.

ekonomi-konpentsazioren bat, edo zerbait korapilotsua dago). N-1aren desdoblamentua eskatu behar dugu, ez Etxegaraterena bakarrik, puntu txar gehiago bai baitaude, ze hau bait da Madril-Paris arteko errepide printzipala. (Jeronimo Gallina)

Nik uste dut eta Eusko Alkartasunak ere hala uste du, ezinbestekoa dela N-1aren bikoizketa egitea. "Susmoa" dugu bailaden arteko lehia batean sartu gaituztela, primatu nahi dela bat egitea bestearen aurretik. Horrek ez du esan nahi, azken batean, Maltzagakoaren kontra gaudenik. Batak ez du bestea kentzen, biak



BELEN
MAIZA,
45 urte,
ordiziarra,
irakaslea.

aldarrikatzen ditugu.

Kontutan izanda gainera, gure errepide hau Europako ipar eta hegoaren arteko lotura dela. Harrigarriena da ikustea Eusko Jaurlaritzaren iritzi-aldaketa, orain sei urte Etxegaratekoak lehentasuna zeukala. Orain preferentzia galtzeaz dago. Nafarroako autobidearekin lotzeko zortzi km. besterik ez dira falta eta 2.000 eta piko urte arte plangintza hori bete gabe uztea ez da zuzena. Eta, ikusi besterik ez dago, konformidade eza latente dago. Tolosaldeak, Goierrik, Nafarroako Gobernuak ezadostasuna agertu dute. Plataforma bat sortzeaz dago eta politikariek gain, afektaturiko gainontzeko sektoreak batzen badira, bada, bete beharko dira gure eskakizunak. (Belen Maiza)

Zumalakarregi, 1
Tfnoa: 88 79 63
ORDIZIA

Buruazaleko tratamenduetan azken teknologia:

- Laser
- Kiromasaia
- Digitopuntura
- Bibraterapia,
- e.a.

**TAPIZ ETA GAINETZADURA
TAILERRA**

B i O K, c. b.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

**GRUPO
VITALICIO**

SEGUROS BANCO VITALICIO - NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUAK

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86

**GOIAGI
OKINDEGIA**

Etxezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA

Adin bakoitzak bere jostailuak (eta II)

Bi aldiz pentsatu behar duzue zer eta zertarako erosten duzuen, jostailu guztiak ez baitira haurraren onerako izaten. Batzuk, asperraldia besterik ez dute sorrerazten haurraren eta, zenbaitek, onura baino gehiago kaltea ekar baitiezaioke haurraren hezierari. Honatx, bada, nolabaiteko dekalogo:

1.- Erne egon jostailuen prezioari. Prezioen berri denok dakigunez, jostailuak sarri askotan garestiak izaten direla esatea alferrik da. Hala ere, ez ahaztu gauza bat dela kalitatea eta beste bat prezioa. Gehien balio dutenak ez baitira beti kalitatetik onenekoak. Kontutan izan ohar txo hau: ez nago prezio jostailua eginda dagoen materialeen kalitateari begira, baizik eta jostailu horrek haurraren hezierarako lagungarri edo kalitate onekoa izan ala ez izateari begiratzen diot. Diru gutxi oso kalitate oneko jostailuak eros daitezke oraindik. Kontua aukeratzeko jakitea da.

2.- Telebistan ematen diren jostailuei buruzko propaganda eta iragarkiek zeri-kusi gutxi izan ohi dute jostailu horiek benetan direnarekin. Ez dira bat edo bi bakarrik horretaz xexu azaldu diren kontsumitzaileen elkarteak. Hori dela eta, erbiaren ordez katurik ez erostearren, hauxe baino ez da egin behar: ez erosi sekula korreoz bidalitako jostailurik. Zoazte dendara eta jostailua eskuetan erabiliz, frogatu iragarkiek jostailuei buruz ziotena egia den. Hala eginez gero bakarrik eros dezakezue jostailua ziurtasunez.

3.- Gaurreguneko jostailu asko eta askok ez dute haurrek irudimena gara dezaten lekuri uzten. Halako jostailuek dena dakite egiten, eta egin ere egiten dute, haurrari inolako aukerarik ematen ez diotelarik manipulatu, egin edo desegiteko. Adibide bakarra jarriko dut: loroak bezain ederki hitzegiten duten panpin berriak baino dezentz kalitate hobekoak (pedagogikoa-goak) dira panpin mutuak, nahiz eta aurrenekoak guztiz materiale sofistikatuz eginda egon eta bigarrenak, beharbada, trapuzkoak izan. Izan ere, panpina ez, baizik haurra baita hizketan aritu behar dena. Hizkuntza trebatuko badu, haurrak hitzegin beharko dio panpinari, eta ez alderantziz. Jostailu polit, eder eta liluragarriak izanagatik, ez du batere merezi horrelakorik erosterik, haurraren posibilitateak garatzen laguntzeko akuilua izan ordez frenua baino ez baitira.

4.- Sarri askotan, jostailuek haurren arteko konpetibitate ezezko bat bultzatzen dute. Haurrak, tamalez, nork jostailu gehiago eta politagoak edukiko elkarren lehian aritu ohi dira. Egin al dakioke aurre kontsumoko gizartearen konpetibitatearen isla besterik ez den horri? Ene ustez, nekeza da oso. Nolanahi ere, jostailuak neurrian erosteko esango nuke nik, behar direnak baino gehiago ez erosteko alegia. Ikuspegi horrek, bestalde, hurrengo puntura narama.

5.- Haurrari jostailu gehiegi eta sarriegi ematen bazaizkio, jostailu horiek beren balio hezgarri guztia galtzen dute "Lo poco agrada y lo mucho amarga" esan ohi da erdaraz, eta esaldia ezin aproposagoa da kasu honetarako. Haragia gustokoa izanda ere, eman jalerik onenari hiru kiloko txuleta bazkaltzeko eta aurki ikusiko duzue, irentsi ezinaren ezinez, txuleta beharturik jan eta goragaleka eta okaka hasten dela. Halako zerbait gertatzen zaio haurrari ere jostailuak barra-barra aurrean dituenean. Egun, eta gure artean, Eguberrietan ezezik, urtebetetzeetan, eskolan nota onak ateratzen dituztenean, eta noiznahi erregalatzen zaizkie jostailuak neska-mutikoei. Gure garaian urtean behin bakarrik, Eguberrietan, jasotzen genituen jostailuak eta, hala ere, oraingo umeek ainako ilusioa (ala gehiago?) genuela esan daiteke. Ona dena laburra bada, bi aldiz ona zioen Gracian-ek, eta, guk esaldi sonatu horretako labur hitza neurtu hitzarengatik alda genezake. Izan ere, lehen aipatu arrazoiengatik, neurtu egin behar baititugu haurrari eman beharreko jostailuak.

6.- Baldin eta gurasoek jostailua hartuta seme-alabekin jolas egiten badute, jostailu horren emaria aniztu egiten da. Nire eritzi horrek azalpen gutxi eskatzen du, helduok haurren jolaskide bihurtu beharra dugula esanez, dena esanda baitago.

7.- Seme-alabekin jolastu ezezik, gurasoek beraientzako jostailuak egingo baltuzkete... Bada, kasu horretan, beharbada beste oilar batek joko liekete kukurruko haurrei, eta onerako jo ziuraski. Kontsumismo itsuaren atzaparretatik ihes egiten ikasten hasiko lirakeke eta... Badakit aita-amek ezin dituztela jostailu moeta guztiak egin. Jakitun nago ere haurrek, telebistan ikusitako jostailuaren eta gurasoek egindakoaren artean aukeratzekotan, seguruenera, telebistakoa aukeratuko dutela. Baina, nolana ere, ez al da positiboagoa, denda erosi ordez, gurasoek seme-alabentzako panpin bat, zurezko autotxo bat edo trapuzko pelota bat moldatzea? Dendakoa ekarri partez, ez al da

hobe aita-amak umeentzako mozorro-jantzia egitea? Gaurregun ia utopia diruditen ideia horiek errealitatea ziren aspaldi gabe.

8.- Bakearen alde dagoenak ez bieziaioa inori jostailuzko armarik opari. Inork ez luke agresibitatea sortaraz dezakeen jostailurik erosi behar, baina, zoritxarrez, badira oraindik astakaiku eta astapistola batzuk umei pistolak ezezik pistolatzarrak ere erregalatzen dizkietenak. Zerbait behar bada munduan bakea behar da, eta, hargatik, denon gogoan ideia hori ondo itsatsi eta erne dadin, hirugarrenez errepikatuko dut burubide bera: bakea ereingo bada, ez dugu ez istilu eta ezta iskuluekiko zaletasuna ere piztu behar haurrengan.

9.- Ez ahanzi askotan jostailu-dendarik onena natura bera dela. Zalantzarik gabe, hobe du haurrak benetako oilo bati benetako artoa ematea, plastikozko oilo bati plastikozko artaleak ematea baino. Plastikozko oiloaren irudi, kolore, bizitasun eta mugimenduak, izan litezkeen perfektuenak izanda ere, haragizkoarenekin alderatu eta hutsaren hurrengo baizik ez dira. Beste adibide bat: ez duzue jostailu dendetako buztinik zertan erosirik naturan aisa aurkituko duzue lokatza eta. Gainera, haurrek, naturako lokatzarekin gehiago zikintzeaz gain, areago gozatu eta ikasiko dute. Hirugarren adibide bat: non disfrutatu eta ikasten du gehiago haurrak, mendietako zuhaitzetara igoz ala lamina, argazki edo beste edozein jostailu-moetarako zuhaitz-izenak buruz ikasiz? Rousseau dut gogoan jakina, eta, jostailu liluragarrien bila nabilela, nik ere; hark bezala, hiri-herrietatik noizean behingo naturarenarenako itzulera aldarrikatzen dut, inon bai eta naturan aurki baitaitezke jostailu ederrak.

10.- Dekalogo honen azken puntu hau zeuok betetzeko dela esan arren, otoi bat erantsi nahi nuke. Haur honi edo beste horri jostailuren bat erregalatzeko asmotan bazabiltzate, eta jostailu horrek zertarako balio diezaiokeen garbiro jakin ez eta zalantzan bazaudete, arren, hobe duzue, zalantza uxatu bitartean bederen, inolako jostailurik ez erostea. Izan ere, ez baita ahaztu behar batere jostailurik gabe ere ederki jolasten dakitela haurrek. Eta, bestalde, kontutan hartu behar baita munduko jostailurik onena baino gehiago estimatzen duela haurrak zuek, helduok, beraiekin jolasean ibiltzea.

Xabier Gartzia

11.000 HEKTAREA IZANGO DITU 3. PROPOSAMENAREN ARABERA

Aralarren parke naturala laister

DUELA urte batzu Aralar berreskuratzeko hasi ziren lanak piskanaka aurrera doaz. Urteetan zehar utzitako eginkizunak Enirio-Aralar Mankomunitateak bere gain hartu ditu, besteak beste, Aralarren ingurugiroa hobetzearen.

Honela, lhardutze-Egitarauaren barne dauden hainbat urrats dagoeneko hasiak dira eta jarraitzen dute. Esate baterako, pagoen landaketa, ganaduaren igoerak, e.a. Baina badirudi une hauetan beste pauso garrantzitsu bat emateko prest daudela Enirio-Aralar Mankomunitatea osatzen duten udalerriak. Honokoa, IKT eta EKOS enpresek Aralar Parke Naturala izendatzeko aurkezturiko egitaraua da. Oraindik egitarau hau aztertzen ari dira arduradunak, baina, agian, datorren urterako proposatutako 11.000 hektareako Parke Naturala izango dugu.

Proposamen ezberdinak

Guzti hau dela eta, IKT eta EKOSek "Aralarko Errekurtso Naturalen Ordenamendu Egitaraua" edo antzekoaren erredakzioaren lehen fasea idazten hasi ziren, bere helburua azterketaren esparrua mugatzea zelarik. Mugaketa egin ondoren, proposaturiko azalera azterketak 10.214 hektarea zituen. Inguru honek Enirio-Aralar Mankomunitatearen lurak, orohar, barne zituen



Joxe Antonio Irastorza, Enirio Aralar mankomunitateko basozaina.

eta gainera Abaltzisketa, Amezketa, Ataun, Lazkao eta Zaldibia-ko zatiren batzu.

Bestalde, inguru honen azterketa egiterako orduan puntu batzu hartu dira kontutan, Parke Natural batek izan behar dituen baliabideak ikusirik. Lurraren jabetza, landaretza, kultura ondarea, errepideak, abeletxe edo txabolak eta Enirio-Aralarrerakiko hurbiltasuna, hain zuzen ere. Guzti hauek ikusita, Enirio-Aralar Mankomunitatea muga bezala hartu zen lehen azterketarako, eta honekin batera Aralarren edukina.

Aralarren dugun ondarea

Txostenak dioenez, Aralarrek baditu errekursoak eta natur edukinak. Honela, kultura arloan, inguru honetan bi estazio megalitiko daude: Aralar eta Ataun Burunda. Aipatutako Aralarrean, bestalde, 40 monumentu zeuden (20 trikuarri, 11 tumulu, 7 mo-

URBITARTE SAGARDOTEGIA

- Kostilla eta txuletetan espezialdua
- Enkarguak Ordiziako Eroskiko Tabernan.



Tfnoa: 88 83 31

ERGOIENA AUZOA. Tfnoa: 88 27 19 • ATAUN



Gudarien Etorbidea, 4
Tel. 88 85 11

20240 ORDIZIA
(Gipuzkoa)

T ▲ A

M PA A

Y PEL O

- ☐ OFIZINARAKO MATERIALA
- ☐ ESKOLARAKO MATERIALA
- ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80 20240 ORDIZIA

AUTO KONPONKETA • MARGOKETA

GAUR, C.B.
KARROZERIA

SAN PRUDENCIO - Mendizabal Tel. 88 86 09 LAZKAO

nolito eta 2 kromleths). Halere, horietariko bi trikuarri eta tumulu bat ez dira aurkitu eta agian galdu egin dira. Ataun Burunda inguruan, berriz, 13 monumentu megalitiko daude, 10 mugatzeko dagoen inguruaren barruan daudelarik. Gainera, arkeologi edo paleontologi aztarnategiekin 13 koba gehitu daitezke. Hauetariko bat, Limurita bezala ezagutzen dena, desagertu egin da, Arratetako atakan harrobiaren esplotakuntzaren ondorioz. Probaleku, korrikaleku eta dantzalekuak (non mendiko artzaiak elkartzen bait ziren joku, kirol eta dantza ezberdin egiteko), desagertu egin dira baita ere, eta gaur egun kokatzen zireneko lekua besterik ez da. Zenbatuta aurki ditzakegu halaber "arkuak" (txozna kupularrak). Ezer ziurrik inork ez jakin arren, adituen ustetan arku hauek mendiko lehen biztanleak gordetzeko ziren. Aralarreko landaretzari dagokionez, Euskal Autonomia Elkargoan oso bakanak diren espezieak daude gure lur hauetan, eta bereziki Ataungo herrian. Honela dauzkagu: artadiak, harizti desberdinak, haltzadiak beste zuhaitz eta landare- moten artean.

Artzai-txabolak eraikita dauden lekuak ere aipatzen dira egitarau-txostenean. Gaur egun erabiltzen diren etxabolez gain hutsik daudenak ere agertzen dira. Bestalde, errepideei dagokionez, bi garrantzitsu daude inguruaren azterke-

tan. Batetik, Ordizia, Zaldibia, Larraitz, Abaltzisketa eta amezketa lotzen dituen eta bestetik Beasaindik Lizarraustirakoa. Aipatu lehena iparraldean dagoen lehen muga fisikoa da. Bigarrenak, oster, bagadiaren lohidura handi bat zatitzen du.

Proposatutako aukerak

Baliabide guzti hauek kontutan hartuta IKT eta EKOSek, hurrenez hurren, bi aukera planteatzen dituzte ingurua mugatzeko. Batetik, Parke Naturalaren mugak lehen aipatutako landaretzarenak izango lirateke. Aukera honetan kultur-ondare ia osoa aurkitzen da eta baita belardi gehienak ere. Baina mugaketa honi gero bigarren bat gehitu zaio, lehena barne dagoe-larik. Aukera berri honek landaretza baino muga garbiagoak bilatzen zituen, hau

da, basoko pistak, ibarretako bideak, udalerriak, e.a. Honela, aukera honekin, ia 11.000 Ha. sartzen dira eta horrekin batera mugak zehazten dira.

Bigarren aukera honek zenbait abantaila ditu, zeren eta Parke Naturala hobeki identifikatzen da kasu batzuetan, esate baterako, ingurua mugatzeko arazo gutxiago daude eta sistema ekoizle oso baten babesa, bai mendiko lurak eta kanpina. Bestalde, eta ezaugarri desberdineko lurak sartu direnez, hainbat modutan erabil daitezke, adibidez, jolas jokuetan edo atsedenerako. Honek bizitasuna eta erakartasuna ematen dio Parkeari.

Hauek dira aurreneko unetan aurkeztu ziren bi aukera, gero hirugarren bat gehitu zelarik. Guzti hauek jakin arazi zitzaizkien Udalei eta Udalok, orokorrean, ados

3. proposamena

Udalerria	azalera inplikatur	azalera publikoa	portzentaia (%)
Abaltzisketa	601,72	345,31	57,39
Amezket	1.001,68	558,15	55,72
Ataun	4.479,33	1.589,70	35,49
Lazkao	221,90	0,00	0,00
Tolosa	293,85	0,00	0,00
Zaldibia	972,57	378,12	38,88
Enirio-Aralar Mank.	3.384,93	3.384,93	100,00
Denetara	10.955,98	6.256,21	57,10

KATTALIN

ERRETEGIA - SAGARDOTEGIA

*Sagardoa
txotxetik*

Antzizar Auzoa, 4, "Biona" etxea. (Polideportibondoan) TEL. 88 92 52 BEASAIN



Domingo de Unanue, 5
Tel. 88 90 98 ORDIZIA

ZAZPI TABERNA

Andra Mari, 5 • Tfnoa: 88 69 13 • BEASAIN

ORMALAN



- ❖ Ormabrik egurrean eginiko etxerako detaileak.
- ❖ Erreminta eta prezisiozko gailuentzako estutxeak.
- ❖ Errotuladore eta klarionentzako harbelak.
- ❖ Iragarkietarako taulak.

Iturtxo-Bidea kalea, 6
Tel: 88 40 01 - Faxa: 888817

zeuden, susmo batzu eduki arren, batez ere, Udalek beren autonomia galtzeko arriskua ikusten zutelako, ikusirik, urteetan zehar instituzio hauek askotan erabakiak denen artean hartu dituztela. Halere, denek azterketa aurrera eramateko nahia azaldu zuten.

Benetazko aukera


Baina badago hirugarren aukera bat, seguru asko onartuko dena eta dagoeneko Eusko Jaurlaritzaren Arrantza eta Nekazal Sailan aurkeztuta dagoena bere onespenerako. Aukera hau bigarren aukeran oinarritzen da, hau da, muga fisikoak garbiak edukitzea. Hirugarrenak, muga geografikoak ahal den garbien finkatzea du helburu. Aukera honetan, Ataungo herria da lur kopuru handien jartzen duena, %ko 68,7 eta 76a artean. Abaltzisketa, Amezketeta eta Zaldibiak jarraitzen diote. Ostera, Lazkao eta Tolosa dira gutxien ematen dutenak.

Lehen esan dugun bezala, aukera hau aztertzen ari dira une honetan mankomunitatean inplikaturik dauden udalak, baina badirudi ez dagoela arazo handirik esateko datorren urtean hemen aurkeztu den plana Aralarreko Parke Naturala bihurtuko dela.

Jesus M. Munduate

Aralar Izadi Taldearen iritzia

Lurraldetasunari dagokionez, Aralar bi zatitan banatua dago, Gipuzkoa eta Nafarroa. Muga naturalik ez izan arren, muga politikoa bat dago. Alde honetatik, Aralar Izadi Taldea Aralar bere osotasunean aztertu, eta esfortzu bateratu baten ondorioz, inguru guztiari erantzun globala ematearen alde egon da beti.



Parke Naturalaren proiektua Gipuzkoari dagokiona da. Hemen, alde batetik Enirio-Aralar Mankomunitateko herri-lurak daude; bestetik, hainbat herrietakoak eta partikularrak. Mankomunitatearen lurretan interes zabalagoak daude, baina herrietakoetan interes partikularrak sartzen direnez, denari tratamendu global bat emateko garaian, helburu ezberdinak aurrez aurre topatzean zailtasunak sor daitezke. Parke Naturala sortzeak ez du Enirio-Aralar Mankomunitatean aurrera eramaten ari den egitasmoa oztopatu behar, honek bere dinamika jarraitu behar bait du.

Aralarrera iristeko dauden lau bide nagusien kontrol zehatza beharrezkoa da. Hauetako bat, errazena eta mendi-katean gehien barneratzen dena (Guardaetxeakoa), Nafarroan dagoenez, egitasmo honetatik kanpo geratzen da. Gaur egun dauden sarpideen mugak ez dira errespetatzen eta egitasmoan mugok beherago jartzea proposa-

tzen denez, zorrotzagoak izan behar.

Aurrerapenak beharrezkoak dira: azpiegitura-lanak, txabolak konpondu, berriak egin eta ura eramatea, baina ahal den kalte gutxiena eginez. Lan hauetarako ezinbestekoak diren akzesuak egin dira, baina behin lanak bukatu ezker (erabilpenik ez dutenez), berreskuratu eta lehengo egoerara itzuli behar da ingurunea.

Parke Naturalaren gestioa, gaur egungo Mankomunitateak baino erakunde zabalago batek eraman beharko luke. Gestio hau ez da politikoen eskuetan bakarrik egon behar, baizik eta interesaturiko gizarte atal ezberdinen artean ere: artzai, ganaduzale, nekazari, mendizale, ekologista, natur-zientzien ordezkariak (Aranzadi) eta Udal-ordezkariak, noski.

Antonio Irastorza.

HARLORE BITXITEGIA

Apaingarriak

Domingo Unanue Pl.2. Tfna: 88 96 17

MIRENTXU LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 2.
BEASAIN

Tfna.88 14 57

ALOSKA

Edergintza-Usaindegia

Domingo Unanue Plaza,2
20240 ORDIZIA
Tel. 88 24 10



Palomo
MODA

PALOMO

ETXE — APAINKETA

Urdaneta 9 eta 17 — ORDIZIA

GOIMEN: goierriar baserriarekiko konpromezua


GOIMEN, Goierriko Mendi Nekazaritza, Elkartea orain dela lau urte sortzen da Eusko Jaurlaritzak indarrean jarritako Mendi- Nekazaritzako legearen babesean. Baserriei produkzio eta zerbitzu mailako laguntza emateko dago.

Mendi Nekazaritza ez da, hala badirudi ere eta gure kasuan, Aralar baterako pentsatutako zerbait. Gipuzkoa guztia dago, adibidez, Mendi Nekazaritza eremu bezala kontsideratua eta gure lurraldean sei bailadetan daude jada beste hainbeste M.N. Elkarte. GOIMENek Itsasondotik Legazpiarterainoko 21 herri hartzen ditu. Bertako Junta Goierriko udalen eta baserriar ordezkarien artean osatzen da. Gehiengo nekazarien ordezkariak dute. Batzordea txandakatuz doa eta urte haseran berritu zenez geroztik, lehendakaritza J.A. Lizarraga Urretxuko EHNEkoaren esku dago. Batzorde horrez gain, teknikoak ere baditugu. Horien artean Joxe Manuel Zubizarreta jerentea. Elkarte hau zertan ari den azaltzen hasi aurretik, zenbait kontzeptu argitu dizkigu.

Zer da Mendi Nekazaritza?

Badira zenbait herri, bailada eta eremu nekazaritza konpetitibo bat egiteko muga handiekin aurkitzen direnak. Oztopoak, fisikoak izan daitezke: topografia, klima, desnibela, garaiera... Edota estrukturalak: baserri txikiak, eguneratu gabekoak eta gainera bertan bizitzeko poz handirik gabeak: azpiegitura (bide, ur-hornidura, elektrifikazio, e.a.) kaskarrak dituzte eta zerbitzu mailako hutsuneak (garraio publiko, posta...).

Guzti honen ondorioz nekazalguneko biztanlegoa izugarritzko atzerakada jasaten ari da. Horrela, estatu espainiar mailan nekazarien biztanlego aktiboa 150.000ean kalkulatzen da gutxitzen ari dela, 60.000 erretiratzeko direlako eta 80.000k beste lanen bat bilatzen dutelako. Egoera honi aurre egin nahian eta geratzen denari laguntzeko sortzen da M.N.



GOIMEN eta Eskualdeko Nekazal Bulegoa Ordiziako Dorreetxean daude, Nekazal Kamararekin eta Basozainaren bulegoarekin batera. Ba al da Goierriin baserriarrik hori ez dakienik?

Behetik gorako etxea

Nekazal munduan eginkizunak bitan banatzen ditu Zubizarretak: produkzioari zuzendutakoak eta zerbitzu mailakoak. Produktzioarako laguntzak Diputazioak banatzen ditu, bere planak bai baititu, ENBulegotik. Zerbitzu mailan, egin beharrekoak egiteko dago GOIMEN. "M.N. Elkarteak gurea planteatu zuenean, behetik gora planteatu zuen, nolabait bailadako jendea bustiarazteko, dituzten beharrei aurre-egiten".

Bertara, partikularrak, elkarreteak, udaletakoak, partzone-rikoak etorri litezke, proiektu bat dutela besapean. Idea lantzen da eta Juntak aztertu egiten du, kontutan hartuz lehentasun batzuek, beharrek eta helburuak parekatzekotan. Aukeraketak egin eta proiektuak bideratzen hasten dira. Baserriar-jendea lasai dator GOIMENera. "Hori nahi dugu, baserriarra indibidualis-

HEGOA TABERNA

Goierri Kalea, 12 (Atzekaldea)

ORDIZIA

AIARZA ANAIK, C.B.

Yurre Lantegialdea, 10

20212 OLABERRIA

Karrozategia, txapa, pintura eta

automobilak generalean

Tfnoa. 880565

ta-samarra izan ohi da eta horri buelta ematea bilatzen da, parte-hartze hori. Prolemtikoxeagoak izan badaitezke ere, saiatzen gara proiektu kolektiboak sortzen”.

Esperientzia batzu egin dira, 7 artzaiez osatutako Ordiziako Gaztandegiarena kasu, gehiagorengana irekia dagoena. Goierri behean ere bada produkziara zuzendutako tresna-kooperatiba bat, 15 kideekin. Goierri garaian NEKALDE, makineri-elkarte, 35 kideez osatua. “Hauek zerrategiak ere badituzte, zerbitzuetara zuzenduta daude, baina horren filosofia ez da elkartzeara gastuak murrizteko, elkar-lanak suposatzen duen gaineratiko guztia baidzik”.

Kontuak garbi

88.an hasita, bost urtetarako programak onartu dira oraingoz. Hor proiektu piloa sartzen dira. Gehientsuenak beti ere, azpiegitura proiektuak izan dira. “Eztabaida polemikoenak hasieran izan genituen eta baserrietarako bide, ur, argi, telefonoak, azpiegitura horiek, beharrezkoenak ikusi arren, azkenekotzat gelditu ziren lehenetsun horiek. Izan ere GOIMENen, hori Udalen e.a.-en eginkizuna zelakoan geunden eta nekazaritzako laguntzak beste premia batzuetara bideratu behar zirelakoan”.

Baina Udal guztiek ez dute konpromezu bera baserriarekin, eta askok parte eder bat jarri arren, Udal batzuen erantzukizunekoak posiblea ez zenez, bere gainean hartu beharra izan dute zama hori eta 92. urteko diru gehienak (aurrekontua 171 milioitakoa eta Diputaziotik datorren M.N.ko laguntza 100 milioitakoa) azpiegiturarako bideratu dira (Aurrekontua: 87 milioi; M.N. laguntza 50 milioi). Finantziabide handiena Diputaziotikoa da, baina bada besterik, komertzializazioa-eta (Ordizia Gaztandegia, adib.). Zerbitzu ekipamenduek ia 61eko aurrekontua zuten eta M.N.ko laguntza 36 milioitakoa izan da) Kultur-formazio ekintzetan (zifra txikiagoak) eta Ikastaroen kasuan ere berdin, beste erakundeetara



ere jotzen da, dela Jaurilaritza, e.a. Bide egokienak bilatzen saiatzen direla, alegia.

Zerbitzuetan bi proiektu izan dira nagusi hemen: Goierri garaiko baserriarrentzat oinarritzakoa zen lokalaren erosketarako izendatua eta Enirio Aralarreko zenbait artzai- txabolen konponketa, ur hornitzea, e.a. bideratu dira. “Urtero txabola parek konpontzen dira. Gero, piska bat denetik, bidaia egiten ditugu, beste eskualde batzu ezagutu, hango antolamendu, baserri, erakunde-eta ezagutzeko asmotan eta beren esperientziak zein neurritan honeratu ditzakegun jakiteko.

Horrez gain, “gainontzean dauden diruak enplegatzekeo prozesua gelditu da: ekimen orijinalak, proiektuak asko landu behar dira. Hala ere, geroz eta gehiago jartzen da horrelakoetarako eta azpiegiturarako kopurua gutxitzen doa. Ari gara sortzen proiektuak piskanaka, jendea Mendi Nekazaritza zertarako den jakitun izan eta sartzen ari den neurrian”, dio bukatzeko Joxe Manuelek.

Jon Arano



ARANTXA MERZERIA

Joxe Miel Barandiaran Enparantza, 3
Tfnoa: 88 76 15
ORDIZIA

KLARATXO

*Jostailu denda
Joku didaktikoak*

Santa Maria, 39 • Tfnoa: 88 92 47 • ORDIZIA

JATETXEA

Euskal
Sukaldaritzan
Especialistak



Enkarguzko Plater Bereziak
San Inazio, 15. Telf: 88 00 37
20200 B E A S A I N

SINDIKALISTA, POLITIKO, MUSIKARI... SUTSUENA IDIAZABALDARRA

Errotarriak irensteko prest ez, Pelaez!

“Izal”go “Kaminoetxe”n, Olaberriko mugan jaioa, inguruko herri guztietakoa ia, Lazkaon bizi da aspalditik, “teatro de operaciones” zabalekoa, “denekin katerban”, nork ez du bere aditzerarik Goierrin? 48 urte ditu izaera indartsuko gizonak, “ezagutua” izango denaren beldurrik ez eta adin horrekin ez pretenditu berari katoia erakusterik. Esperientzia aberatseko pertsonai jakitun, hiztun eta labur-gaitza dugu Alberto Pelaez. Hamarretik bi jarri ditugu.

A ita zena (Jesus Larrañaga “Goierrin”-ren lagun) Eibarren preso zegoela jaio zen, gerra bukatu eta “Batallon de trabajadores” delakoan sartu baitzuten, ‘gorri’ izateagatik. Se-meak baditu aitaren makina bat gerra pasadizu eta abentura mitiko gogoan, argazki ugari berriz (Rezolarenak, e.a. ere) gordeta. Nahiz isila izan, berotutakoan bazekien hitz egiten aitzak eta gerra garaietako komerietz irakatsi zion. Harengandiko errieta bakarra gaztetxo zela jaso zuen abertzalea-go agertzeagatik. Sukalde-txokoan aditutakoak 30 urte eta pikuren buruan konprenitu ditu. Ez dira esatekoak denak ere oraindik.

Gorri eta abertzale

Gaztetandik datorkio politika, sindikal-gintza eta saltsa horietarako grina neurri-gabea. Rikardo Arregi ezagutu zuen Herri Gaztedi garaian, gerora hamaika lider eza-gutu dituen gisa, eta ‘ikutu’ bat handik. “Soldata batetik bizi behar, langile izan eta gorria ezpahaiz, tontoa haiz. Orain ere soldata txiki batekin pasatzen gaituk andrea, hiru seme-alabak eta bostok” dio, eta mundura etorri bezala, larrutsik joango ga-rela hemendik, bere asmoa ez dela aberas-tea eta bai nor izatea, kontzeptu horiek planeatzen dute elkarrizketan zehar.

Gazterik hasi zen CAFen, bertako esko-lan egun-erdia (Telleria pintorearekin-eta), gainontzekoa lanean. Horrela hasi zen Pe-laez gorri eta kristauen, erdaldun eta eus-kaldunen artean ikasten. Bergarako Aberri Eguna eta Bizkaiko huelga handiaren on-dorengo (61.-62.) Beasaingo Fabrika Haundiko greba salbajeak ditu gogoan, makina bat goierritarren izenak edo seinak aipatzen dizkigula: “Honuntza ‘a bayoneta calada’ etorri hituen grisak. Hura ezagutu genian, Beasaingo arresetar eladioak (gu ere Lan-Deya partitzen arituak gaituk mu-tikoak ginela, Kepa Anabitarte genian bu-ru), Matias Mendizabal ordiziar fina,

saldanatar gorriak, bat hil zen, Lazkaoko ‘Centurion’, Porteriko Iñaxio Lasa. Attola zaharra, Mattin... hor jarraitzen ditek mo-tikok bezala, eskola eginaz. Bizi guztiko jendea horiek izan dituk eta denekin ondo eramanean, abertzaleak bezain ondo euki zetuak, nahiz batzuk espainolak izan”. ‘Katakume’ bat zen Alberto, 15-20 eram-ten zion jendea bazen tartean.

Garai hartan, sindikatu bertikalaren ba-rutik eta gainetik, sistemari oposizio pis-kat egitekotan, denak elkar hartu zuten. Sigla-arteko sesioak laister hasiko ziren. “Komenio-markoaren diskusioa zen. CA-Feko zubitik irtetzerakoan, emakumeek ogitartekoak ekarri zizkiguten, eta gero, erreketen edo falangista bat genuen alda-menean, langileen interesen defentsan ate-ra behar izan zuena, eta hark aurrean zi-tuen indar militarren buruari esan ziona ospetsua egin zen: *No hemos luchado con Franco para esto!*”. Luze mintzo zaigu bere eta bere lagunaren lehen eskapadeta-z, izen guztiak gogoratzen *“pattala nauk. Esan ohi didate: polizia bahintz, hire se-meeek bikario-enean jan beharko litekek.*

Pelaez ordean, ikusia izan da, “punto-mi-ran” egon da urteetan, protagonismo-gogo-rik gabe izan bada ere, agindu zaionean, agindutako lekuan egon dela aitortzen digu apal asko.

LAIA bai/ ez/ Pelaez

70. hamarkadako martxa izugarritzat dauka oraindik. Burgosko Auzia,... “Bo-lada hartan, ETaren Frente Obreroaren eszizio batetik aterea, purian LAIA zegoen. Jende ezagun bat etorri eta ‘hau eta hau egin behar diagu Pelaez’, esan zidaten. Han ere petralkeria. Zatiketa bat suertatu zen. Azkenerako, haserre guztia horretan zetzan: langilegoaren ikuspegitik, KAS, koordinadora bezala ametitzea, ala ez. Diskusioa betikoa, izan dena, dena eta izango dena. LAIA ez zen eszizio espaino-

lista”. Zatiketak ez ziren bi: LAIA bai, LAIA ez... eta LAIA pelaez! Oso famatua egingo zen esaldia.

Denborak ‘LAIA pelaez’i arrazoiak eman diolakoan dago. Askok teorizatu zen orduan: “zapaldutako herri bateko langilegoaren klase interes eta beharrezanaren arabera, langilearen presuestu eta kontsegitu beharreko guztiak borroka armatuarekin batera eramanean ala ez. Tesi erraza, baina... Geroztik Argalak esan zituen horiek gar-bien”. Izan ere hura ere ezagutzea tokatu zitzaion eta! “Gero zertan gelditzen diren, jendeak berak demostratzen du, denbora-ren galbaheak gauza bat erakutsi du, goi-zeroko egun- argiak bezala... Paper guz-tiak legitimoak dira, irauten duen bitartean bizitza honetan denak errespetatu behar dira, bai eta aurka daukagun etsai garbie-na ere”.

Langilea langile

Pelaez ‘zoruko-langilea’ izan da beti eta etsaiek eta duintasunak eramane izan dute eramane duten lekura. Bi fabriketatik bota zuten kontu horiek medio. Mutikoa zen eta kargudun batek CAF guztia departamentuz departamendu hesitu zuen, mobida batetik bestera ez pasatzeko: “gauza bat inbentatu zen: identifikaturik ez izateko, mobiliza-zioan ‘sugearena’ egin, horrela errepre-sioa jeitsi egiten zen. Arriskatuena gorri eta abertzaleak izaten hituen”.

Askok geroago, bere etxera bila espreski joanda, enkargatu kolokatu zuten “Estanda”n hiru urtez. Langileek huelga bat egin dute eta handik 50 kalean jarri di-tuzte. “Jerenteak, pistolarekin ibiltzen zen bat, esan zuen, zerbait egin zutenak eta egin gabekoak, aukeratuak despedituko zituela. Frantzian naziek egin zutena: diezmatu. Goierriko beste fabrika-nagusi batzuk ko-mentzitu behar izan zuten astokeria- bide horretatik haundi bat zabalduko zuela de-netara. CAFeko pertsonal-buruak egin

zion aurre hari. Jerentea jeitsi da behin, eta non eurak kontratatutakoa, Pelaez, langileekin zegoela!"

CAFeko atrako mitifikatua ere gertutik bizi izan zuen 'izaldarrak'. "Manolo Otegi detenitu zien. Etxetik konturatu nintzen izugarritako bat egin zela. CAFeko akzionista zen general bat etorri zen milatik gora guardia- zibilen manduan. Olaberriko mendi-inguru denak hartuta euki zituzten. Aidean atera nitzen ikustera. Iurreko errektan, Olaberriko bizkaraldean, auto ilada bat sartu zen rau! Zakua zeramaten bi lagun atzetik zihozten, eta espektakulu ederra eman zioten auzo guztiari: zabaldu die guardia zibil piloa maldan gora eta goitik izugarritako tirokada bota die iheslariek! Errekazuloan sartu dituk eta orduerdi batean ez zirela handik mogituko pertsekutatzaileak! Harrak jango dituzten begiok ikusi zien".

Militantearen lanak

Martutene 68.ean gaztetan eza-gutu zuen, CAFekin Belgikara lane-ra joan eta bueltan Melitonena. Goierritar zientoa gartzeleratu ziren ordutan. Gobernu zibileko garajetan egoteaz marka hautsi zuten Pelaezek-eta: 34 egun. Berogailu-tuboei lotuta, gainean egiten zituztela egin beharrekoak. Makina bat bizi izan-dako astakeria, sarraski eta jipoiak, datuak, xehetasunak, ia-sinistuezi-nezkoak bizi izan ez duenarentzat, kontatzen dizkigu eta bere karisma konfunezinarekin kontatuko dizkio ezagun duenari. Ehundaka urterekin mehatxatzen bazuten ere, 7 egunez bakarrik gartzeleratu zuten, ezer gutxi egin baitzuen; azkenerako Pelaezekin karrerarik ateratzerik ez zegoela eta horrela askatu zuten. Egia esan behar bada, askok eta askok bestelakoa diote harro asko, ETAn ibili direla. Pelaezi ez zaio inoiz egokitu hor ibiltzea, nork esan?, nahiz puntako jendea ezagutu duen.

Alberto bere kasa irakurri eta ikasitakoa da. Bere teoriak ditu eta komunistekin, "gauza sagratu bat ikutzen bazidaten, ni beti parean aurkituko ninduen. Momentu koiunturaletan haserretu egiten ginen. Orain bolada honetan erreferentzia falta inbentatu dute, Sobiet Batasunaren erorketarik. Gu ez gara hara begira egon sekula ere". Stalinista bezala ez litzateke azalduko orde gaur, Santagedara ez baitu joan nahi.

Lehen Gestoretan aurrea eta LAB sindikatuko Idazkaritza Nazionalan ere egona 80.etan. Anaitzat daukan Xabier Arrutik ibiltzen zuen hara eta hona. "Nora gindoazten ez nuen jakiten kotxetik jeitsi arte. Igoal erdi gau-pasa egin eta goizeko 7etan fabrikara, lanean segitzera". Ardatz nagusiak garbi zituela eta mila istorioetan izan zen ordezkari, talde edo klase-interes zerbiztuan. Gaur egun ez bezala, dena organizatuago, sailkatuago eta finkatuago ikusten baitu, behar ere bai, 'parakaidistak' bezala ibiltzen ziren, alor desberdinetan lanean. "Herri honek hala eskatzen dik eta ez zekiat berriro ez ote dugun bueltatu beharko garai haletako moduetara", dio. Deziditua eta osasuntsua zenez, aurrean ibili behar. Madriren prentsaurreko bat eta guzti emana da 79. aldean.



'Indiokeriak' egindakoa, gauzak barrutik ezagutua, abenturak bizitutakoa sumatzen dugu Pelaez. Ogitartekoak makina bat denboran jandakoa dela aitortzen du eta bere emazteak, lehenengo gauza, "bizi al da?" galdetzen zien lagunei erresistentzia garaian.

Azken urteak

14 urte daramatza lanean Irizar-enean. Bere gazte-denbora guztian militantetzan aritu izana desordutan, guzti hori azke-nean gorputzak, mugak dituen, pagatu egiten duela uste du. Askok egin nahi izaten dela, baina nahi denetik ahal dena tarte dagoela. Berak depresioaldi bat izan zuen orain 4 urte eta bere familiari ere tokatu zaiolakoan dago. Dena den, ez da damutzen bizitutakoaz. Familia zaindu eta umeak hazteko garaia ere iritsi zitzaion

ordea, eta lehen lerroa utzi zuen. Izan ere, nola batera eraman lana eta erakunderen baten martxa?

Libre samar geratu zenean, 80.etan, "Arrano Beltza" musika taldea osatu zuen Lazkaoko Josune Albisu, Jon Urdangarin, "Triku", Jokin Garmendia, gazteekin. Musika zaletasuna orain dela 30 urtez gero datorkio bateriajoleari, bere bi anaiekin batera (Gonzalo eta Joxemari Egan-en jotzen dute) "Esca-polis" taldea sortuz gero, Yoloak, Bostak, Xinbas eta horien garaian. "Musika zertarako? juerga armatze-ko!, erromeri piska bat egin eta horrela". Geroztik ezteietan eta jo izan du tartetan Iturri-ekin eta. Titereak eginak dira musika-munduan orain Drindots direnekin batera Euskal Herriko "ipurdian" ere. Egan-ekoentzat letrak egin ohi ditu.

Apartatu arren, politika mundua ez du utzi, "ganbaran nahikoa egin duela" eta herriko HBko batzordean parte hartzen du. "Politikaz jakiteko ez da preziso profesionala izatea: kontzeptu motzak eta garbiak. Hemengo istorio guztien laburpena bat duk: ijito edo indio-tribu batek ere, bizi ahal izateko hiru gauza behar ditu: lurra, jendea eta hizkuntza. Lurra finkatu ezinda gaude, hizkuntza larri, eta biztanleria, modernidade honekin, geroz eta gutxiago. Istituzioen bidea, elkartzaileak badira bai, bestela etzekiat!". Politika egiteko moduak aldatu direla dio eta hor dagoela etsaiak jarri digun tranpa: "nola ez direla gauzak aldatu?".

"Buruak eta bihotzak agintzen duen adina ez dago egiterik. Jendeak kontutan har dezala gaur Euskal Herriak dituen 1000 eta gehiago preso eta erbesteratuak, proportzioan Espainiak 20000 edo gehiago balitu bezala direla".

Pelaezen logika aplastante guztiak ezin ditugu orriotan kabit. "Etsaiaren beldur-rrak: enbor beretik sortuko direla besteak; garai bateko irakaspideak gaurko baliagarri direla eta lorpenak ere badiugula euskaldunok. Gobernuak, kanpaiak isiltzeko, sakristauarekin ez baino kanpajolearekin hitz egin behar du. Bizi bagara ikusiko dizkiagu ikusi beharrekoak. Horiek denak errosarioa errezatuz ez zetuago egingo", esaldiarekin bukatzen dugu.

Mikel Aramendi
Mikel Albisu

GOIERRI KANCHUNGSE ESPEDIZIOKO HEGALARIAREKIN

Marron: "Himalayan hega egitea oso fantastikoa da"

Azken urte honetan ondo ezaguna izan da inguru hauetan Goierri Kanchungse espedizioa. Kamixetak atera, bertso saioa antolatu etabar. Hau dena eta gehiago egin behar izan dute gailur hau lortzeko, Mikel Saez de Urabain ordiziarra, Ramon Agirre "Marron" ataundarra, Ramon Baztarrika "Txanpi", Iñaki Urteaga "Kiosko", Jon eta Imanol Lasa lazkaotarrak. Azkenean lehen hirurak bakarrik lortu zuten gailurra egitea; gainera, Marronek parapentearekin salto egin zuen 7.400 metroetatik. Hauek dira Marronek "abentura" honetaz esan dizkigunak.



GOIERRITARRA: Zergatik Kanchungsera?

MARRON: Himalayan zerbait egiteko asmoa genuen eta aholku batzuk entzun ondoren, behar bada, altura aldetik, gure posibilitateen barruan zegoen mendi bat izango zelakoan joan ginen. Antolaketa aldetik berriz, edozein mendik bezelako infrastruktura eskatzen zuen. Gainera gutako batzuk Himalayan esperientziarik ez zuten, helburu haundiagoei begira beharrezko pausu bat da.

G: Teknika aldetik ze zailtasun ditu mendiak?

M: Ez izotzetan ez harrian eskalatu beharrik ez dagoenez, zailtasun teknikorik gabeko mendia da. Zailtasun handiena zenbait glaziar gaingitzea da, horma, pitzadura etabarrek. Hau gaingituz 6.900 metrotara iristeko astebete behar izan genuen, hortik gora 50-55°ko pala bat zegoen eta hau dena soka fijoekin ekipatu genuen. Zailtasun handiena fisikoa du, elurra oso biguna zegoen, belaunetara sartuz, bidea irekitzea zaila izanik. Gainera ez dugu sherparik erabili eta lan guztia guk egin arren, politagoa da.

G: Egiguzu igoeraren gutxi gora beherako kronologia bat.

M: Kanpo basera (5.560 m.) irailak 1ean iritsi ginen, bertan bizpahiru egun egin genituen altuerara ohitzeko. Ondo-

ren bidea tanteatu, lehen kanpoa (6.000 m.) Irailak 4an jarri eta piskanaka materiala igotzen hasi ginen. Bigarrena (6.900 m.) irailak 10-12 inguruan ekipatu, dena prestatu eta lehen atakea bertatik egin genuen. Baina Makalu-lan (7.400 m.)

"Espedizio berri baterako talde polita atera liteke Goierriin"

ikaragarritzko haizea eta hotza egiten zuenetaz buelta hartu genuen.

Jadanik kanpo basean, batzuk bigarren saialdirik ez egitea erabaki zuten, besteok berriz 7.400 metrotan hirugarren kanpamendua jarri saiatzea. Hau 23an egin eta hurrengo goizean 11:30ak aldera gailurrera iritsi ginen hiru ordu t'erdia ibili ondoren.

G: Zuk parapentea eraman zenuen, zer suposatzen du karga eta esfortzu aldetik, merezi al du?

M: Denontzat da lana, nik eraman nuen baina 3. kanpotik aurrera beste bien artean bidea irekitzeaz gain zenbait tresna ere eraman zizkidaten. Karga handia zen

eta azken arista oso zorrotza baina esfortzuak merezi zuen.

G: Tontorrera igo, parapentea zabaldu eta...

M: Bai asmo hori nuen baina haize handia zegoenez ez zegoen parapentea zabaltzerik, pena bat izan zen. Ordu erdiz zai egon nintzen eta egoerak berdin jarraitzeaz gain lainoa sartzen hasi zen. Gaur Makalu-lan pasatu eta eguraldiak hobera egin zuen, haize piska bat zegoen baina gutxitu egin zen. Kondizio aldakorak zirela eta presaka hasi eta lehenengo saialdian soka bat izotz plaka batean kateatu zitzaidan. Beste biak neri laguntzen hotzak akabatzen zeuden bizarrak eta dena zuri-zuri zituztela.

Azkenean lortu nuen ateratzea eta hortik aurrerakoa oso "fantastikoa" izan zen. Haseran beldur piska bat nuen, besteen erreferentzietan entzuna nuen tenperaturak aldaketak direla eta gora behera handiak izaten direla. Hega egiterakoan nahiko noblea zela ikusi eta lasaia ibili nintzen. Orduan hasten da disfrutatzen, atera eta segituan dexenteko altuera hartu nuen eta berealdiko panorama ikusten da: Everest aurrean, Makalu ezkerrean... Hegaldua uste baino luzeagoa izan zen, lagunek esan didatenez 20-25 bat minututakoa.

G: Andeetan ere hega eginga zaude,

ezberdintasun handia dago?

M: Chimborazon (6.300 m.) gailurra baino beheraxeagotik hega egin nuen baina Himalayakoa "salbajeagoa" da: munduko tontor handienak, alde batetik Tibet, bestetik hango bailara luzeak... Gainera gehiago motibatua joan nintzen, askoz gozoagoa izan zen.

G: Altuera hortatik salto eginez Posadas bizkaitarraren errekorra hautsi omen duzu.

M: Ez dago oso garbi. Gainera niretzat ez da oso garrantzitsua, pertsona aldetik gehiago da. Baliotsuagoa da ondorengo espedizioetarako laguntzak aurkitzeko.

G: Baimenen bat ekarri omen duzue. Zer proiektu duzue?

M: Baietz esango nuke. Udaberrian, arabar batzuekin Everestera noa ni, dirua bilatu, elkar ezagutu, antolatu eta beharrezko lan horiek egiten ari gara. Datorren

udazkenerako Cho Oyu-rako baimena ekarri dugu, Goierri talde bat osatu nahi dugunez hemendik jendea gonbidatzea gustatuko litzaidake. Lehen ere Goierri-Kangchungserekin kanpaina bat egin nahi izan dugu eta ez bakarrik gure burua hortik aurrera eraman. Goierri mailan badago jendea eta horretarako talde polita atera daiteke, proiekturik ez da falta.

Mikel Albisu

Bi lerrotan

✳ Beasaingo "Club Billar Teide" taldeak 1. Gipuzkoako txapelketa irabazi du joku honetan.

✳ Martinez Gereñuk irabazi zuen Olaberriko II Mountain Bike proba. 18 km. tako ibilbidea atera ziren 64 txirrindularietatik 53k bukatu zuten. Jokin Ugartemendia izan zen proba bukatu zuen olaberritar bakarra.

✳ 100 ordiziar inguruk hartu zuten parte Behobi-Donostia lasterketa herrikoian. Hauetan hoberena Peio Garmendia izan zen: ordubete eta zortzi min.

✳ Azaroaren 8an, Beasaingo Aitzgorri Mendizale Elkartea Juanito Cia ospetsuari omenaldi bikaina eskeini zion, Finalistaren Egunean.

✳ Idiazabalgo Kirol Elkartek eta herriko gazteek neskentzako futbol txapelketa bat antolatu dute abenduan hasi eta Sanblasetan bukatuko dena.

✳ Xabier Aldanondo ONCEko txirrindularia Beasainen hezitua izan arren segurarra da. Duela gutxi merezitako omenaldia jaso zuen jaioterrian, joan den denboraldian Giro eta Tourra bukatuz denboraldi bikaina burutu bait du

✳ Goierriko futbol taldeen liga txapelketaren hasierari dagokionez, Beasain eta Lazkao, bakoitza bere mailan, taularen erdi aldean dauden bitartean, Ordizia behekaldean dabil. Gazteen mailan berriz, Ordizia, Idiazabal, Beasain eta Lazkao ordena horretan taularen goiko erdian daude.

**Kirol jantzieta
espezialistak**

Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18



20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO

**GURPIL
BIZIKLETAK**

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN

GOIERRITARRAren irakurleak,

Txartel hau aurkeztuz % 10ko
deskontua izango du GURPILen
edozein erosketa egiterakoan

BEIZAMAKO HILKETA (I)

BEIZAMAKO GOROSAGASTI baserrian, 1926. urteko azaroaren 14ean, ama-alabak ilda agertu ziran: Bibiana Okariz, 66 urtekoa eta Maria Juana Odriozola, 27 urtekoa. Biak bakarrik bizi ziran baserri ortan. Nik 9 urte nituan orduan. Ala ere ondo gogoan daukat gertaera negargarri arek gure ballarari eman zion astiñaldia. Gorosagastitik urruti ez baidago. Aserako zeaztasun batzuk Pako Aristi egunkarizaleari artu dizkiot. Gai ontaz bi artikulu argitaratu baizituan "El Diario Vasco" egunerokoan, 1986ko azaroaren 12an eta 19an. Gaiñontzeko zer esanak, berriz, orduan nik ikusi eta entzunak dira, edo orain jendearen aotik ikasiak, galdezka ibili naiz eta.

Jazinta Odriozola, beste alaba, Tolosan bizi zan, ango Zeru-txiki tabernan lan egiñez. Igande artan, eguerdiko amabiak aldera joan zan baserrira, ama eta aizpa bisitatzer. Atea erdi irikita zegoan. Barrura sartu eta izututa geratu zan: aizpa, eskillara barrenean zegoan ankaz gora, bular aldea ebakita, eta sukaldea odolez betea. Ia bere onetik aterata, oiuka asi omen zan amari deika, eta iñork erantzuten ez.

Orduan gertuena zegoan baserrira abiatu omen zan: Garagartzara. Baiña irureun bat metrora, bere ama ilda billatu zuan. Buruz bera omen zegoan eta bizkarrean zeuzkan zauriak. Orduan, amaren gaiñetik ez pasatzeagatik, berak esan zuanez, Txapartegi baserrira, urrutiago egon arren, joan omen zan, ikusi zuanaren berri tristea ematea. Kanel, etxeko txakurra, alaba illaren ondoan omen zegoan; eta farol bat amaren ondoan. Aita aspaldi illa omen zan, eta bi seme Ameriketara joanak, dirua irabazi eta soldaduska ez egiteagatik. Zauriak kutxilloz egiñak zirala ematen omen zuten. Etzegoan batere arrastorik ateratzerik. Ala ere, illabete barruan dana argitu omen zuan Pedro Marroquin juezak, bere ustez beintzat.

Frantzisko Aranburu eta bere anaia, Jose Inazio, artzaiak, izan omen ziran lenengo detenituak. Urrena Jose Manuel Oiarbide. Ondoren Isidro Aranburu, Beasaingoa, Jose Migel Urkizu, beizamatarra eta Juan Frantzisko Men-

dizabal, beizamatarra bera ere. Azkeneko iru aukerak askatu zituzten. Jazinta ere detenitu zuten. Deklarazioak artu eta libre utzi. Baiña laister berriro sartu. Oraingoan, dana amaitu arte, etzuten libratu. Aseran negarra besterik ez omen zuan egiten. Gero bera izan omen zan gure auzoko Mujika eta Arantzegi bi familien kontrariorik aundienetako bat.

Beste asko ere detenitu arazi omen zituan Marroquin juez orrek: ijito-talde bat, Martin Artola Bedaioko artzai bat, Goizuetako baso-mutil bat, Jose Antonio Irazustabarrena Ormaiztegiko tratantea. Baita libre utzi ere, erruga-beak zirala ikusitakoan. Juezaren iritziz, gauzak onela gertatu ziran: krimena gauzez egin zan, amaren ondoko farolak adierazten zuanez; eta ostiralganean ziur asko, larunbatez ez baiziran ama-alabak, oi zutenez, Tolosako merkatura azaldu. Oieratzeko asmotan zeuden, iltzailleak atea jo zuanean.

Itxurak diranez, Maria Juanak atearen goiko aldea irikitakoan, iltzailleak ebaki izugarri bat egingo zion bularrean, ezkerretik eskubira. Orduan, alaba eskillaretan gora igesi asi, amarengana noski. Au oiean zala esan nai du orrek. Baiña ia igo zanean, atzeraka erori. Eskillarak odolez bustita baizeuden. Ama, aren karrasiak entzunda, etxe atzetik aterako zala. Iltzailleak, ori ikusi eta segi, farolaren argiaz; eta, arrapatu zuanean, kutxilloa bizkarretik sartu. Aurrena, iltzaillea lapurretara joango zala pentsatu zuten. Baiña Gorosagasti baserrira pobrea zan. Maiztarrrak ziran, eta nagusiari 1.400 pezeta zor omen zizkioten. Batzuek esan zutenez, txekorra saldu berria zuten, eta aren dirua etxean eukiko zutelakoan joan ote zan. Baiña diru ori artu zuenean, Aurrezki Kutxa edo Bankuan Tolosan sartua omen zeukaten. Besteak zioten, gorrotoa zeukan batek agindu ta egin ote zituan eriotz oiek. Gauza garbirik etzan azaldu.

Amaren orpoak odolez zikinduta omen zeuden, baiña alpargatak garbiak. Orrek esan nai zuan, alabak bota zituan odoletan oin utsik pasatu zala, eta gero alpargatak jantzi. Itxura zanez, ama



oiera joana zan; eta, karrasiak entzun zituanean, oietik jeiki ta anka utsik jetxi zan alabarengana. Orduan bustiko zituan oiñak. Gero, odolak zerbait legortuta jantzi zituala alpargatak; eta, alaba illik ikusi zuanean, etxetik alde egin zuala. Iltzaille orrek ez omen zuan izango ama iltzeko asmorik. Bestela, etzion utziko alde egiten. Baiña gero nunbait bildurtu, berak galduko ote zuan. Igoal izango zan bere ezaguna. Orregatik pentsatuko zuan ama ere iltzea, etxetik atera ta laguntza eske zi joala ikusi zuanean. Zauriak aundiegia omen ziran labana normal baten tzat. Ardiei illea mozteko guraizak dudarik gabe esaten zuten; erdiko tornilloa kendu eta guraiza erdiarekin egiñak.

Batzuk kartzelan sartu eta deklarazioak eginda bialtzen asi omen ziran. Frantzisko Aranburu artzaia eta Jose Antonio Irazustabarrena tratantea bakarrik omen zeuden kartzelan. Frantziskoren borda ondo miatu zuten, ezer armarik billatzen zuten. Baiña ez omen zegoan zato ardoa, bujanda bat, babarruna, ogia eta gazta besterik. Aldaola-beko baserriko Jose Inazio ardi askoren jabe zan. Neronek ezagutu nuan ondo. Beizamako terrenotan ardiak ibilli oi zituan. Basoa libre uzteagatik, Beizamako erriari urteko zortzi edo amar pezeta ordaintzen omen zizkion. Aiek ordaintzera joanda, Beizaman galdetu omen zioten ea errotarik gertuena nun zegoan; eta esan omen zien Itsasondoko partean bi errota zeudela:

bat Zubin baserrian; bestea Lizardi baserrian, gertuena zegoana. Orduan paper bat eman omen zioten Lizardiko errotakoei entregatzeko, eta berari laguntzeko Aldaola-goiko baserriko Manuel Unanue lagun artuta etorri omen zan Lizardira.

Ez dakit seguru paper ortan zer abiso ekarri zuten. Baiña Beizaman edo Azpeitin presentatzeko izango zan. Orduetik zuten lenengo asera Lizardi baserrikoak, eta emazte Madalenak esan omen zuan: --Zer egingo ote digute? Eta Miguel Jose senarrak: --Lasai egon zaitea, orain danekin orrela ibilliko dira eta. Lenengo deklarazioak artu eta etxera bialdu omen zituzten. Baiña urrengo egunean danak kartzelara eramateko agindu omen zuan Marroquin juezak. Eraman zituzten Miguel Jose Aranzegi, Jose Joakin seme zarrena, Jose Antonio seme gaztena eta iru alaba: Fermina, Joxepa Iñaxi eta Luzia. Beste baserritik eramane zituzten Bizente Mujika eta bere alaba Maria Joxepa; eta Ramon, Bizenteren anaia eta Maria Joxeparen senarra, osaba-illobak zeuden ezkontuta eta. Bi etxeetako amak, Madalena, Miguel Joserren emaztea, eta Dominika, Bizenteren emaztea, biak edadekoak ziralako, beren alabarik gazteenak amari laguntzeko etxean utzi zituzten: Mikaela, Bizenteren alaba eta Maria, Miguel Joserena. Bi etxeetatik amar lagun eramane zituzten.

Danak kartzelan banaka jarri omen zituzten, alkar ikusten etzutela. Egune-ro deklarazioak artzera eramane arazten zituzten. Egun batean (Ramon Mujikak kontatzen zigun), juezak esane omen zion beste danak il zituztela eta, aitortzen bazuan zein zan kulpantea, bizirik utziko zutela; bestela, arekin ere berdin egingo zutela. Eta Ramonek erantzun omen zion, gezurra aitortzea baiño naiago zuala iltzea. Orduan, "Pronto caeras" esane eta ostiko bat emanda bialdu omen zuan berriro kartzelara. Atea itxi eta alde egin ziotenean, giltza-zulotik kanpora begira omen zegoan, eta bere emaztea ikusi omen zuan nola zeramaten mikeleteak deklarazioak artzera. Orduan pentsatu omen zuan dana gezurra zerabilkiala juezak.

Beraren anaia, Bizente, eramane zuan, galdetu omen zion juezak ea noiz aitortu bear zuan zein zan kulpantea. Eta arene erantzuna: eriotza orrekin etzeukala zer esanik, etzekiala ezer eta. Orduan, lapitz bat eskuan zuala, okotzaren azpitik gora jo omen zuan juezak; eta, lapitzaren puntarekin zuloa eginda, odoletan utzi omen zuan. Orduan Bizentek, besteak ere odoldunak ziralara jenio txarrean esane omen zion juezari; eta onek, bultzada bat emanda, atetik kanpora bialdu omen zuan, kartzelara berriz ere. Era orretan ibili arazi zituzten danak. Ondoren, Jazinta Odriozola ori pekatari bezela ibili omen zuten; eta gero uste det juezaren laguntzaille jarri zala. Batzuetan parrez eta urrengoan edozeiñen kontra itzegiteko preparatzen omen zan.

Nik ez dakit garai artako egunkari-zaleak berak asmatzen zituzten edo Marroquinek agintzen zien zer jarri. Egunero jende guztia egotene zan egunkariaren zai, zer kontu jartzen zuan jakiteko. Egun batean ekarri zuan Miguel Jose artu zuala juezak, eta esane ziola ea noiz deklaratu bear zuan egin zituan krimenak; eta Miguel Josek erantzun zion etzeukala krimen oiekin zer ikusirik. Eta Jazintak galdetu omen zion Miguel Joseri, ea ez al zuan deklaratu nai, goizeko ordubietan, krimena egin eta etxera iritsi ziranean, bere alaba gazteenarekin atariko errekarara joanda, Gorosagastin erabilli zituzten erropak alabak garbitu arte, farolari eustene egon zala. Ori, gure etxean orduan zegoan apaizak sukaldean irakurri zuan.

Beste batean, egunero zai egotene zan eta, irakurri zuan Azpeitiko Juzgaduane Urkiko apaiza deklaratzene ari zala nola konfesatu zion Miguel Josek bera izane zala krimenak egin zituana. Familia oiek ezagutzen etzituztenak, sinistuta egotene ziran, oinbeste gezur irakurri ondoren, kulpanteak aiek ziralakoan.

Gero eramane zituzten Miguel Joserene seme bigarreña Martin eta bere sozio laguna. Legorretako Beroztegi ballarako Frantzisko Lasa zane lagun ori. Bien artean, Tolosan zerra bat erosi zuten 14.000 duro ordainduta eta aurreko igandean Murumendi aldean intxaur

arbolak ikustene ibili omen ziran. Ortaz enteratu zanean, aiek ere kartzeleratu egin zituan juezak. Orduan 14.000 duro gaurko 50 milloi aña baziran; eta ikustene zanez, Frantzisko Lasa orri, zerra eta terrenoak erosteko dirua, beraren anaiak, etxean ezkontuta zegoanak, Juanek, jarri izango ziola jendeak esaten zuten. Bere anaia kartzelan sartu zutenean, Juan ori larri: anaia kartzelan eta emandako diruak aidean.

Eguna joane eta eguna etorri, lau bat illabete pasa ziranene, Lizardi-beko Miguel Mari Irastorza, gurdi egurrearekin panaderira eramateko; eta mendi-bideetan gurdiari karga aundia ez jartzeagatik, atzetik erantsi eta bi arbola adar arrastaka ekartzen zituzten; eta kamiño ondora iritsitakoan, moztu eta orduan gurdiaren gainean jarri. Aiek moztene ari zala Miguel Mari, etorri omen zitzaien Juan errotakoa, Frantzisko kartzelan zegoanarene anaia, eta galdetu omen zion ea zer zion jendeak kartzelan zeudenengatik. Miguel Marik erantzun omen zion dana gezurra esatene ari ziralara; lizarditarrek etzeukatela ezeren kulparik.

Orduan, buelta eman eta alde egin omen zion. Miguel Mari, bere gurdi egurrearekin, Ordiziara joane omen zane panaderira. Ogiaren truke eramaten zuten egurra. Gure aitak ere, amar ogi lau librakorene truka eramane oi zuan. Ordizian gurdia ustu eta bueltan Beroztegira iritsi zanean, lenago kargatu zuan tokirara, jende guzia bueltaka omen zebiltzan. Ala jendea ikusi zuanean, galdetu zuan zer pasatzen zane. Eta lenago berari galdezka egone zane Juanek, errotaren ondoan zeukaten baserri zar bat, Kastilla izena zuana, eta an ganbarara joane eta bere burua urkatu zuala esane omen ziotene.

Laister konturatu izango ziran. Beraren amak itaiarekin moztu omen zion soka. Bizirik zegoala ematen omen zuan. Alegiñak egin omen zizkiotene, lurrera jetsita. Baiña danak alperrik. Emaztea eta alaba Maria Luisa, artean oso umea, utzi zituan Frantziskok.

Bixente Barandiaran
("Zartu gabe ezin bizi"-Auspoa)
(jarraituko da)



THINDOKI, S.A.
GAT. 1.025

inmakuladako zubia eta eguberriak
abenduak 4-8: %5aren deskontuarekin goierritarrentzat

St. Lary:	13.900 pzta.
Valthorens:	14.900 pzta.
Piau Engaly:	15.200 pzta.
Tignes:	17.300 pzta.

abenduak 26- urtarrilak 2:
St. Lary: 25.800 pzzta.

urtarrilak 1-6ra:
La Mongie: 27.600 pzta.

urtarrilak 2-9ra:
Valmorel-Doucy (Alpe ak): 19.900 pztatik.

Prezioan forfait+ alojamendua+ tasak+asistentzia aseguruak eta abar sartzen dira.

Urdaneta 11 behea
Tel: 887200
Ordizia

LEIAR
KRISTALDEGIA



Erakin eta merkatalguneen
Kristal ezarretza - Beirategiak - Orma-ispiluak

ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlfn: 88 88 24
BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tlfn: 88 60 70
BEASAIN

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe

Mariaratz, 4 : 88 86 84 Urdaneta, 68
20200 BEASAIN 20240 ORDIZIA

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK



K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

MAKINERIA ERAKUSKETA
HORNIKUNTZA INDUSTRIAL ETA
EGUR BILTEGIA

EGURRA, S.L.

Jose M. Iturrioz, z/g.
Telefona: 88 06 21
Fax. 88 06 21
20200 BEASAIN

C-N 1
Telefona: 88 29 44
OLABERRIA

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN



MUGICA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA

Takolo, Pirrutex eta Porrotx pailazoak parreak lorarazten

Goierrialdean denetatik bagenuen eta oraingoan pailazoak ere baditugula esan daiteke. Duela 2 urte etorri zen bizitzera Lasartetik Zaldibira Agus Mujika: Takolo, Pirrutex eta Porrotx pailazoen taldean "serioaren" antzezlanaren egiten du.

Herriz herri alaitasuna zabaltzen hasi zirenetik bost urte osatu dituzte: 386 ekitaldi. Urtero sketx berriak lantzeaz gain, leku batean lan berdinek ez dizute egingo. Diska eta ipui gida didaktiko bana kaleratu dituzte orain "Elkar"en eskutik. Arlo honetan zerbaitegitera ausartu den bigarren euskal pailazo taldea izango da. Hau aroberatzatuz beraiengana hurbildu gara.

G.- Kuriositate gisa: Zergatik Goierriara eta bereziki Zaldibira?

E.- Betidanik herri txikitarako joera izan dut, masifikazioa ez zait batere gustatzen. Nire haurtzarora eta gazte garaia Lasarten igaro ditut, txikitari inguruko baserri batetan bizi nintzen eta gero herrira jeitsi nintzenean nekien hizkuntza galdu nuen. 17 urte nituela gogor ekin nion eta euskara berreskuratu nuen, geroztik euskararen aldeko mugidetan murgilduta aurkitu naiz. Donostia hurbil izan arren, herriko giroan gustorago sentitu naiz.

G.- Zer da pailazo izatea?

E.- Zehazki definitzea oso zaila egiten zait. Konplexua bezain ederra da. Denok barruan pailazo bat daramagu. Gizarte honetan nahi dugun bezala mugitzeko muga asko ditugu, eta noizbehinka "pailazokeriak" egitea beharrezkoa zaigu. Komiko bat da baina ez edonolako, publikoak parre egin dezan edozein gauza egin dezake, baina beti



bere kalterako, ez ditut besteen akatsak erabiliko, bereak baizik eta askotan tarta bat bere aurpegira botako du. Pailazo komiko "masoka" da.

G.- "Pailazo" deitzen badizute, zer sentitzen duzu?

E.- Mesprezuz esan ezker nolabait mindu egiten nau, baina bestela, harrotu egiten naiz. Jendeak hitz magiko horren inguruan zer dagoen jakingo balu ez luke "pailazo" hitza hain erraz erabiliko.

G.- Zein izan da bost urte hauetako bilakaera?

E.- Hasi ginenetik gauzak dexente aldatu dira, esperientzi berak bideak nola jorratu erakutsi digu. Zenbait ikastaro egin arren azken finean praktika bera izan dugu irakaslerik onena. Antzezlanaren gero eta gehiago hobeagotu nahi dugu eta ahal den kalitate oneneko eskeini gure ikusle goiari. Aurrepausoak nabariak izan ditugu jazkera, antzezlan, materiala, teknika artistikoa, dekorazioa, megafonia arloetan.

G.- Hainbeste ekitaldiren artean zeintzu izan dira hunkigarrienak?

E.- Orokorki denak izan dira, baina batzuk bereziki aipatzeagatik, ba... Donostiako eskola batean itsu zen neskato bat gu "ikustera" etorri zenean, ekitaldi

guztiaz geldidageldi egon zen eta bukatu guregana hurbilduz ikutu gintuen eta gero eskuetan zekarren marrazkitxo eskeini zigun. Edota Hernaniko Zaharren Egoitzan 80 urtetako amona batek ia negarrez eskua luzatuz esan zigunean: "bihar berriro etorriko al zarete?". Beste batean, Areso herrian Pirrutex eta Porrotxek afarirako nituen arraultzak puskatu zizkidatenean, haur txiki bat bere baserrira joan zen eta arraultza dozena bat ekarri zidan.

G.- Bilbo ala Segurako plaza?

E.- Bietan gustora. Izaeraz, jarreraz eta kopuruz publikoak ezberdinak dira, gu guztiengana iristen saiatzen gara eta horretan jarraitzea espero dugu.

G.- Diska munduan Txirri, Mirri eta Txiribitonek lan egin dute beti. Zuek ere beste diska bat kaleratu duzue, nolako esperientzia izan da?

E.- Hasieran nolabaiteko beldurra ere bagenuen, baina gauzak ongi ateratu dira eta egindakoa aztertu ondoren ba hain gaizki ez dagoela ohartu gara. Ekitaldien bukatu gero jendeak kantak eskatzen zizkigun eta horrek animatu gintuen. Musika moldaketak Iñaki Salvadorrek egin ditu. Gure lehenengo lana izanik, ilusio handiz egin dugu.

Koldo Zubeldia

Ormaiztegi ezagutuz

XIX. erdi-ararteko pertsonai ospetsuak

Txikia izanik ere, mendeetan zehar gure herrian jaiotakoen artean izan dira hainbat gizon ospetsu, Ormaiztegiren izen ona zabaldu dutenak. Pertsonai horien artean hauek izan daitezke aipagarri:

Lope de Arandia izenekoa, Toledoko katedraleko "racionero mayor" izandakoa. Ormaiztegiko Andres Deunaren elizan parroko izan zen. XVI. mende bukaeran. Berjaldegi etxean berari egindako idatzi bat zegoen, eta honela zioen:

STET PORTA HEC DONEC
IO LUPUS DE ARANDIA ROME PENS
TOLET PORTIO RECTOR S. ANDRE
VIDEAM FINEM CAL MAY. 1.594

Eta hil ondoren bere lagunek barrenean:

Rat T. OR-A-V-F
(Serapio Mugicaren esanetan)

Juan de Zubiaur Y Aguirre. Hau guda eta itsasoko kapitain izan zen 1663. ean.

Francisco Antonio Celaeta, 1763. an La Coruña edifizio militar eta fortifikazio errealeko janari partitzaile izandakoa.

Francisco Zubiaurre, Cuencako kanonigo eta 1.715. ean Peruko Cordoba hiriko gozai ordeko (obispo electo) izana.

Tomas Zumalakarregi. Pertsonai hontaz historian zehar asko idatzi denez, lerro batzuk besterik ez dizkiogu eskainiko.

1788. urteko abenduaren 29. an jaio zen Ormaiztegiko Arandi baserrian eta egunetara Iriarte izeneko baserrira eraman zuten. Bere aita Francisco Antonio Zumalakarregi eskribau erreala zen eta ama Maria Ana Imaz Altolagirre. Lau urte zituela aita hil zitzaion. Bere haurtzaroa ez zen beste edozein umerena bezalakoa izan. Izakera jator baina jenio bizikoa. Bere eskola lagunek begirune handia zioten, jolas-garai guzietan arto kainaberekin lagunaren artean egiten ziren guda jolasetako zuzendari izaten zen. Eskolako maisuak aurrez honela esan omen zion amari:

"Hau kapitain haundi bat izango da". Eta hala gertatu ere!

Mutil honen zaletasuna ez zen oinarririk gabekoa. Aita eta amaren sendietan ba omen

ziren guda gizonak: Don Miguel Zumalakarregi 1640. urte inguruan Teniente Coronel eta Nules-ko Gobernadore izandakoa eta Don Jose Imaz Altolagirre, amaren anaia, XVIII. mende haseran espainiar ejerzitoko generala izandakoa.

Eusebio Zumalakarregi, Tomasen anaia, apaiz edo eliz gizona izan zen. Bere garaian Gipuzkoako eskupetarik onena zen, eta bere burua onenentzat jotzen zuen "Guardia de Corps" bati irabazi omen zion dema bat tiroka. Lehiaketa hau, bertakoek entzuna dutenez, Ormaiztegiko eleiz atzean egin omen zen.

Zumalakarregitar honek beste bi anai ospetsu ere ba omen zituen: Francisco Antonio eta Migel Antonio. Lehenengoa "Guardia de Corps" izan bide zen eta "Compañia Americana" ko kapitaina; Amador Carrandik dionez Alcantarako habitoa lortu zuen. Bestea berriz, anairik zaharrena, jurista zen eta justiziako ministro izatera iritsi omen zen. Badirudi bi anai hauek jaiotzez idiazabaldarrak zirela.


Omaiztegi XIX. mende erdialdera

Hemendik aurrera ugarituko badira ere ez daukagu datu gehiegi garai honetaz. Aktetan agertzen denez, 1857. urtean 638 biztanle zituen Ormaiztegik. Herriar hauen bizibidea lurgintza eta abelzaintzan oinarrituko zen, lurak oso aberatsak ez baziren ere. Serapio Mujikak dionez, herria 60 baserrik eta 35 bat etxek osatzen zuten.

Garai hontan serbitzu minimo batzuk bazituen Ormaiztegik: eskola, sendagile, udal-letxe, apaiza, ardo partiketarako ostatua, e.a.

Gauza argirik ez badakigu ere badirudi Ormaiztegiko ibaietako ura erabiliaz hiru errota bazirela herrian. Serbitzu hauek herriko jendearen beharretara moldatzen ziren.

Garraibide aldetik, aintzinan ba omen zen Seguratik Azpeitira zihoan auzobide bat Ormaiztegitik pasatzen zena. 1846. eta 1848. artean, gaur egun herri erditik pasa-



tzen den kamioa ireki zen. Kamio hau Legazpitik barrena Oñatirarte iritsiko zen, eta Ormaiztegiren hedakuntza eta garapenari asko lagundu zion.

Zerbitzuak antolatzen

Oñatirarte zihoan bideak herrirako aurrerapen haundia suposatu bazuen ere, Serapio Mujikak berak bizi izana adierazten duen bezala, Ormaiztegiren garapenaren garrantzi handiena izan zuen gertakizuna zubiaren eraiketa izan zen.

(Ikus GOIERRITARRA, 7.-8. eta 16. eta 17. zenb. bereziak)

Norteko ferrokarrilaren eraiketa garaian, hau da, 1860 eta 1864. artean Ormaiztegin tunel, trintxera, burdinbide eta abarren jakituna zen jende asko bildu zen. Baita langile eta kontratista ugari ere. Hori zela eta ostatuak, tabernak, bolatokiak, e.a. ireki ziren herrian jendetza eskeintzeko. Sortutako zerbitzu berri hauek, ugaritasun garai hartan bertako langileei ere ordaintzen zitzaizkien soldadak kontutan hartuta, laguntza haundia suposatu zuten herriko baserriarrek aurrez oso aberatsak ez ziren lur hauek errekurtsio gehiagorik lantzeko.

Ikuspegi orokorra

1841. urtetik aurrera Gipuzkoako garapen ekonomikorako garai berri bat ireki zen. Etapa honetan industria berrien oinarriak jartzen hasi ziren bilakaera honen emaitzak 1930. alderarte argi agertzen ez baziren ere.

Garapen honetan garrantzia haundia izan zuen barne aduanak Estatuko mugetara edo ta kostara pasatzeak, honek Gaztela eta gainontzeko Espainiarekin harreman ekonomikoak asko sakondu bait zituen.

Euskal Herrian burniaren esplotazioa indartzearen eta ondorioz siderurgia eta

melargia lanei gogor heltzeak (Bizkaian batez ere) Europarekiko harremanak asko bultzatu zituen. Giro honek garraio bideak modernizatzea behartu zuen, kamioak bezala burdinbideak eraikiz.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, abantaila hauek eragin nabarmena izan zuten gure herrian. Kamioa ireki orduko bertako "ur

beltzek" inguruan ezagutu eta kanpokoek ere probetxua ateratzeko modua izan zuten. Zubiaren eraikuntzak berriz, kanpoko jendea bildu eta herritarrek hizkuntza eta ohitura ezberdineko pertsonekin harremanetan jarri zituen.

Honek ordean, ez du ahaztu erazi behar behin eta berriz agertzen eta aldarrikatzen

denez, herrian ezinak ugariak izan ez zirenik, batez ere azken karlistada garaian, bai eta ondoren ere. Baina garai honen azterketa luzea izango litzatekenez, beste lan batetarako utziko dugu.

Garbiñe eta Elisabet Ezkurdia
(Argitaragabeko "Ormaiztegiren bide berriak" liburutik)

ORDIZIAKO HISTORIAREN PASARTEAK (I)

Industria: lehen urratsak

Jakina denez nekazaritza izan da duela gutxi arte, gizartearen ogibide nagusia. Iraultza industrial XVIII. mendean hasi zen Ingalaterran eta geroztik iritsi da gure lurraldeetara. Trenbidea dela eta, 1860 inguruan, Villafrancan baziren bi irin-fabrika, pospoloena beste bat eta beste txokolate fabrika batzu.

Villafranca zaharrak, inguruko herriek ez bezala, ez digu olaren, garaiko burdindegien arrastorik utzi. Beasainen eta Olaberrian bai, han baziren bi ola: Yurrekoa eta Yartzakoa. Villafrancan olak falta baziren ere, baziren, itxura denez, olagizonak eta olagizon horiek, bailarako beste batzuekin elkartuta, izan ziren ondorengo burdin fabrikak bideratu zituztenak.

1860an martxan jarri zuten "Fabrica de Hierro S. Martin". Lantegi horrek gorabeherak izan zituen karlista gerrateak zirela eta 1878an berregin zuten eta lanari berrekin "Caldereria Guipuzcoana" izenez. Azken honek bere gorabeherak izan zituen eta lantza-fabrikazioari ekin zioten "Goitia y Compañia" izenaz.

1892an osatzen dute "La Maquinista Guipuzcoana" deitutako fabrika. Bertan muntatu zuten galtzairu-labea lehena izan zen Gipuzkoan. 1901an "Sociedad Española de Construcciones Metalicas"ek erosi zuen "La Maquinista" eta 1917an, berriz, "Compañia Auxiliar de Ferrocarriles"ek. Handik aurrera bera izango zen Goierriko "Fabrika Haundia".

Ez da ahaztu behar garai hartan Goierri zuden lantegi guztiak hauek zirela: Kartoi-fabrika 1; alpagata-tela fabrika 1; tinta-fabrika 1; xaboi-fabrika 1; teila-fabrika 1; 3 pizar-fabrika; harotzeria mekaniko batzu; 2 karro-fabrika; likore-fabrika 1; eta beste ezer gutxi. CAFen eragina haundia izan zen eta bere itzalean sortu zen hainbat tailer.

Azoka

Villafranca zaharrean, nekazaritzaz gain, eragin haundia zuen gure egunak arte iraun duen azokak. Azoka horrek eta beste ganadu-feriek gora-behera asko izan zuten historian zehar, baina itxura denez horretan dirau XVIII. mendean geroztik; 1787. urtetik hona, hain zuzen. Azokaren inguruan merkataritzak beti izan du bere indarra Villafranca zaharrean.

Trenbidea

Aipatzekotan, aipagarrienetako berrikuntza izan zen burdinbidearena. 1863an hasi zen tren-zerbitzua Donostia eta Beasainen artean. Baina Villafrancan ez zen geltokirik. Villafrancak geltokia eskatu zuen, adieraziz bertan 1.400 lagun bizi zirela, bazirela zenbait fabrika, astero azoka egiten zela eta urtean lau ganadu-feria. 1869an geratu zen tren lehena aldiz Villafrancako geltokian.

Argi elektrikoa

Argi elektrikoa urte batzu lehenago iritsia zen Villafrancara. 1826an hain zuzen.

XX. mendea: Gerraurrea

Hauek dira SIADECOK emandako XX. mendeko lehen hamarkadetakoa Villafrancako jendetzaren bilakaerari buruzko datuak:

Inmigrazio haundia izan zen gerra aurrean Villafrancan, inguruko hainbat herritan be-



zala. 1930.ean Ordiziak 4.500 bizilagun zituen. Informazio batzuen arabera, bizilagunen erdiak baino gehiago kanpotarrak ziren: %30a probintzian jaioa; %10,8a Euskal He-

Urteak	Bizilagunak	Zentsuarterko hazkuntza	Hazkuntza 1900ez geroz
1900	1.421		
1910	2.318	63,1	63,1
1920	3.059	31,9	115,3
1930	4.423	44,6	211,2
1940	4.335	-2,0	205,1

rrian jaioa; %16,2 espainiarrak.

Garai hartan jende gehiena fabriketan, tailerretan eta merkataritzan enplegatzen zen. Eta esan behar da emakumeak kasik guztiak etxeko lanetan iharduten zirela. Ordizian bazen ordurako Antzokia, eta antzerkia ikusteko aukera ere bazuten. Baina oraindik ez zuten, Tolosan bezala, zinema soinuduna ikusteko aukerarik.

Andoni Eskisabel

GOIERRIKO ZURAK, S.L.

Inportazioko zur-biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
88 80 23

20210 LAZKAO

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA



AROBBI Sukaldeak

Foru, 70 • Tel: 16 02 11

- HALTZARIAK OROKORREAN
 - SUKALDEETAN ESPEZIALIZATUAK
- SUKALDE** Haltzariak
Nafarroa etorbidea (Etxe-Ubi) BEASAIN
Tel: 88 35 43

Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03



SOLOZABAL AUTOESKOLA L PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia
- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etkezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA



auto-eskola ORDIZIA

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAOAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA



Zure Argazki

Urdaneta 18 • Tel. 889325 • 20240 ORDIZIA

Ostatua

ZERAIN

Tf. 80 17 99

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

Eraikuntzak P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

Gudaria eta ibiltaria

“Joseba Rezola, Gudari de Gudarís” (Historia de la Resistencia Vasca). Eduardo Jauregi. Sabino Arana Fundazioa.

Ezer gutxi dakigula gure herriaren historiari, ez da gezurra! Ordizian edadeko jendea Joseba Rezola nor izan zen galdetuz gero, ziur badutela herri-semearen berri. Gazte-jendeak egingo nuke ezetz. Dena den, liburu hau ez da interesgarria Goierrikoentzat bakarrik, Rezolak lan gaitza egin baitzuen Euskal Herriaren alde.

Liburuaren lehen orrietan Josebak Ordizian eraman zuen bizimodua kontatzen du. 14 urterekin EAJren barruan zegoen jada. 34ekin Aurora Lopez de Goikoeztearekin ezkondu zen. Behin, oraindik ezkongea, hala esan omen zion emazte izango zuenari: “Niretzat lehendabizi Jaungoikoa dago, gero Euzkadi eta gero zu”. 31n, Madriletik etorri berria, Alderdiaren hauteskunde-kanpaina antolatzen zebilen jaioterrian (Ordiziak itza!, zen bere esaldia). Gerra heltzean, Errepublikaren alde egin zuen Rezolak.

Bizitza emankorra, oparoa

Gatazkaren lehen hilabeteetan Gipuzkoako Gerra-Juntako Komisari izan zen. 36an Euzko Jaurilaritza sortzen da, eta Defentsa Saileko Idazkari Orokor izendatzen dute. Baina ez zen sobrare bulego batean geratzekoa eta lehen lerrora joaten zen maiz gudariaren sorospenean. 37an preso hartu zuten Santoñan eta heriotz-zigorra ezarri zioten. Gabonak espetxean pasa zituen. Ez zuten, ordea, afusilatu. 39an Burgosko espetxe latzean zegoen (liburuan argazki izugarriak daude). Urteak pasa ahala, gartzela-zigorra gutxitu eta 43an baldintzapeko behin-behineko askatasuna eman zioten eta Madrilera desterratu. Desterruan zegoela, alaba hil zitzaion Iparraldean.

Ordurako Euzko Naia talde paramilitarra antolatua zeukan buruak. Gerora ere iraun zuen erakunde horrek, baina Joseba gabe ezer ez zen berdin. 43an, EAJk Erresistentzia Junta sortu zuen: Rezola berriro buru. Espioitza lan handia egin zuen tal-

deak Europako gerratean aliatuen alde. Francoren DGSean infiltratuak zituzten eta baita harremanik frankisten kontrako taldeekin. 44ean atxilotzen dute, baina segituan askatu, ezin izan zuten jakin inolako talderen buru zenik. 45ean, desterru-zigorra kendu zitzaion, baina ez zuen izan Ordiziara etortzerik. Berriz atxilotu dute baina hanka egiten du Donostiatik mugaz bestaldera. Mugaz bi aldeetako abertzaleen egituraketari esker, besteak beste armak eta lehergailuak pasatzen zituzten hegoaldera. Rezola arduradun izan zuen sareari esker antifrankista ugari pasa ziren bestaldera. Gaur egungo Ertzaintzaren aitzindari joa izan da.

Frankismoari aurre egiteko bazen ha-maika kultur talde mozorroto. Guztien gainetik, Jaurilaritzaren Kontseilu Delegatua zegoen. Ordiziara lehendakari. Kontseilu honen barruan, EAJ, ANV, sozialistak, errepublikazaleak eta PC. Beren arteko batasuna indartzeko eta E.J.n zuten konfiantza adierazteko Baionako Paktua zinatuz 45an, STV, UGT eta CNTekin batera. Munduko 2. Gerratean BBC irratiak lan itzela egin zuen. Rezolak hor nahi zuen salatu Espainiako errepresioa. Monzon, Landaburu, Durañona, Rezola, e.a.-i esker Radio Parisek betetzen zuen egiteko hori. Bide horren hariari jarraiki, Radio Euzkadi sortuko du. “Gure Irrati Ixilla”ren probak Iparraldean hasi ziren, elebiduna zen. Kontseilu Delegatuaren burua, Agirre Lehendakariaren agindupean, zen irratiaren joera-arduradun. Espainiar presioek itxi zuen Irratia eta ia 12 urte beranduago sortu zen berriro Venezuelen. Telebista bat sortzeko jesticioak ere egin zituen Italian. Esan liteke beraz, EITBren aitzindaria ere izan zela.

51n Estatuko langileek greba ugari egin zuten, egoera politiko-ekonomikoa zela medio. Zenbaiten ustez, EEBBk Franco ez laguntzea ere bazuten helburu. EEBBk, komunismoaren beldur, Franco laguntzen hasi zen. Erromako Elizaren bedekapena ere lortuko zuen. Errepresioa izugarria izan behar zuen. Euzkadi Irratia diru-eskasia, Rezola garraiogintza lanetan hasiko da, “Mory y Cia”n! 56an Euskal Mundu Kongresuan. Besteak beste, EGI eta ETaren sortzaileak izango zirenak hartu zuten parte Parisen. Erakunde berriak ez ziren sortu ezerezetik. Ordurako uste da erresistentzia ahuldutzea zegoela. EGIn ondoan EKIN



sortuko da. EAJk hasieran ontzat hartu arren EKIN, hauek ez nahi haren kontrolik. Biak ere ahaleginetan EGI bereganatzeko. ETA sortzen da 59an. F. Bergaretxeren esanetan, Rezolak uste zuen ETAk armak utziko zituela Euskal Gobernua Euskadira itzultzean.

Baina ez zen ekintza eta alderdi-gizon bakarrik izan Joseba Rezola. Primo de Riveraren garaian ere euskal antzerkia bultzatu zuen gure Goierri honetan. Monzonekin batera 54ean, euskararen egoera aztertu zuen eta euskarazko edo euskarazko zatiak zituzten aldizkariaren bilduma osatu zuen. 50ean Sabindar Batza eratuko da. Helburua Sabino Aranaren lana ezagutaraztea. Elkartearen lehendakari izatera iritsi zen 60-65 urteetan. 63an Erbesteko E.J.-ren Lehendakari-orde izendatu zuten.

Makina bat korritu zuen munduan zehar, nahiz azken urteetan makal egon, pasatu zituenak pasatu zituelako. 1947an Liejan Kristau-Demokraziaren Nazioarteko Batasunaren sorreran izan zen EAJ eta goierritarra, berriz, hamaika kongresutan. Nazioarte-mailan, antifrankistak lagundu zituen, Francoren bukaera iragarri zuen eta Amnistia Internationalekin ere bildu zen. Burgosko Prozesuaren garaian makina bat ibilera egin zituen Leizaolarekin batera Europar barrena heriotz-zigorra bete ez zitezkeen. 1971ko Gabonetan hil zen Donibane-Lohizunen. 84ean Ordiziara ekarri zuten. Joseba Rezolaren oroimen ederra dauka ezagutu zuenak.

Jon Zabalegi

Eta zer egingo diogu bada? *Munduko gauzarik onenak* ere bukatu egiten omen dira, eta hala iragarri ziguten hura ere bukatua da jadanik. *Expo 92-a* batetik, *Bartzelonako Olinpiadak* bestea, *Kulturaren kapitala* eta bestelakoekin, sonatutzat iragarri ziguten 92-a. Hara, nere egia kontatuko dizuet, Olinpiadetara ez nintzan joan kirol kontuetan nere jakiunde eta zergatik ez, interesa ere, apartekoa ez delako, ziurrenik kirola ez-ezik bestelakorik ere izango zen Bartzelonan bainan. Bainan Sebillara bai, hara joan ginan, eta eskerrak gainera, ze aparteko grazirik ez bazigun ere egin, ez joatea ez bait zen propioa izango inondik inora ere. Hura, joan eta ikusi beharrekoa zen. Madrilek berriz, interesa eta jakinmina pizteko ez du kultur-gune eta bestelako muntaien beharrik, hiria bera ere nahikoa kultura bait da. Bainan esperientziak-esperientzia, 92. hau zerbait izan ez baldin bada, hori *sonatua* izatea da.

Azkeneko urtariletik honerako hilabeteek zer *son* ekarri digute bada? Agian *Radio Futuraren* azken diskoko moldaketak, zenbaitzu "son" estiloan. Eta haiek despedidakoak gainera, Madrilgo hirukoak jadanik bereak eman omen ditu eta. Jaun-andereok erreserbara iritsi gara! Urtea gutxiagorekin ezin da pasa, atzera edo aurrera abiatzeko

garaia dugu, fundamentuzko ezer gutxi entzute honek ez bait die mesederik egingo azken urte hauetan aurretik ere nahiko minduak ditugun entzumen eta adimenei. 91. urtean *Heavy*-ak eta soinu indartsu eta bortitzek izan zuten berpizteari eutsiz, ildo beretik hasi zen aurten goa ere. Lehenbiziko gunea, *Seattle* hiria izan zen, *EEBBtako* iparraldean, bertatik abiatu bait ziren, *Mudhoney*, *Pearl Jam* edota *Temple Of The Dog* bezalako taldeak, eta batipat urteko zantabatarik iskanbilatsuen, *Nirvana* hiruko kementsua. Horrek berarekin ekarri zuen ingurumari horretako taldeen indartze bat, *Red Hot Chili Peppers* edota *Faith No More*, azken urte honetan biak ere *EEBBtako* zerrendetan lehenengo postu banarekin. Eta hor berritik ezer gutxi zetorren.

Bainan Erresuma Batuan gertatzen ari zena, alerta gorrian jar ezazteko modukoa zen, *Iron Maiden* eta bestelako taldeen berpiztea. Lehenago oso ondo ez, eta orain okerrago. *Lou Reed*-ena beste horrenbeste, eta hori azken hau, kritiko eta "adituek" nik ez dakit nola jarri zigutelarik gainera. Zer esan behar dugu *Mike Oldfield*-etaz? Urte dexte ixilean pasa ondoren, aurten *Tubular Bells II* honekin etorri da eta. Eta agian oso polita izango da, salmenta pilo batekin gainera, bainan hori ez da *Tubular*

Bells II, I-a baizik, itxura berritua badator ere. Azken aste hauetan *Sex Pistols*-en bilduma lana ere bai, baita urterokoa dugun *Bob Marley*-ren kantu ez-ezagunen sorta bat ere. Hau da marka, betikoa-rekin gabiltz bueltaka. *U2* taldea bai, zerbait berria egitera ausartu zen, talde rockero kontsolidatuek gutxitan ematen bait dituzte hone-lako pausoak, eta beren lan berrian dantza ritmoak tartekatu bait zituzten, bainan zertarako? Zati handi batetan beren ospearekin maldan behera abiatzeko, *Achtung Baby!* lana oso gutxi saldu omen da *EEBBtan* eta *Europan* eta.

Eta zuzeneko emanaldi eta kontzertuekin gertatzen ari dena. Batetik, garai batekin gonbaratuz gaur egun oso talde gutxi hurbiltzen da gugana, eta etorritakoei ematen diegun estimazioagatik, *Donostian The Cure* taldearen despedidako jiran, bost mila lagun, duela sei urte hamar mila. Ikeragarria da. Kontzertuetan salbatzen diren bakarrak *Heavy*ak dira, bainan *Heavy*ak beti salbatu dira, baita buru makur ibili diren garaietan ere, oso fidelak bait dira. Nondik eta zer ikasia dugunean ere, gaitz-erdi ezta? Krisia alde guztietakoa izan da, bai igorleen aldetik, bai eta hartzaileen aldetik ere. (n)Krisia bai sonatua.

Joseina Etxeberria
("Euskadi Gaztea"ko esatari
ataundarra)

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N

Andrek gizonari eta alderantziz

“Matrimonioa ementzien, gizona itsue ta andrek launtzen zion gizonai. Ta asarrau eitten zien bik:”

Gizona:

Nere andre onekin txit asarre nabil izan ere alako maritxua dabil gizonagana ezta errenditzen umil obeditzea baño naiago luke il.

Andrek:

Obedittuko nuke merezi bazenu inoiz errespetua norbeak galtzen du zu okar zabiltza eta nik ezin zuzendu gure okasioa orrek ekartzen du

Gizonak:

Nere andre Kazintak artu diran gala bertso berriak para bear dizkidala kulpagabea asitzen bazedadeala gauza jakiña dago gaiztoa zedala.

Andrek:

Zuk esaten didazu gaiztoa naizela nik esango dizut zu medezi bezala ea danak aditzen jarri ditezela nik esango dizut zu okar zabiltzela.

Gizonak:

Sekulan egin izan ez dizut gaitzikan aldeakeanean mesedea baizikan nik aditzen badizut olako itzikan ez dezu izango bizkarrean otzikan.

Andrek:

Baldin makillarekin ni jotzen banazu egun asko baño leen damatuko zazu itsu aurreko beti ebiltzen nauzu zuloen batean or gelditu bazu.

Gizonak:

Ni zuloan sartzeko zaude pregonatzen ni berriz goseak naukazu akabatzen zerorrek dakizu zuk ondo gobernatzan miserian nabil ni beti akabatzen.

Andrek:

Janen faltan etzaude gezurra da ori ez egon argaitik eder eta lodi. Sugandilla jandako katua dirudi ta oi beretzako ezin gustatu iñori.

Gizonak:

Lotsagabeagorik andrea zu baño iñun ere ikusi ez det egundano ez da desonratutzen iñor ortaraño desanparatzen nazu atzeko alderaño.

Andrek:

Jan eranak balio ez do zuretzako orren faltan etzaude zimur eta plako bai inbidi osoa ta txarra zeralako ezin ikusi zuk andrearentzako.

Gizonak:

Zeiñek ikusiko du gauza ori ala arabilla arto utsik jango nukeala anka ankari eziñ eman deala ta zu berriz gobernatzan beti egiñ ala.

**Ataungo Pilar Bazta-
rrikari jaso, Jone Arin
eta Josune Arruaba-
rrenak, 1985.ean.**

Goiber
ZERBITZUEN
GESTIOA

AZPKOETXE Z/G TEL.: (943) 73 13 56
CIF. E-20398749 . 20230 LEGAZPI

GARBIKETA ZERBITZU INTEGRALA

* Garbiketa komentzionala eta industrialak

- Bulegoak, lokal komertzialak, kristalak, makineriak, tximiniak...
- Akristalamenduak, brilu-emateak, baita zoru argizariztaratzeak.
- Fatxadak, tetxu eta teilatuak.
- Obra-bukaera garbiketak.

* Eraikuntzarako zerbitzuak

- Kontrata eta obra proiektuak. (Etxebizitzak, pabiloiak)
- Etxebizitzan berrabilpena.
- Igeltseritza orokorrean.
- Inpermeabilizaketa.
- Loragintza.
- Forja eta errementaritzak.


190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

Euskadiko
Kutxa



FOTOKONPOSAKETA

ANtZA

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxa: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

GRAFIKAGINTZAN
AURRERA GOAZ